

INGURUMEN KRISIA:

Asiako hego-ekialdeak uko egin dio
Mendebaldearen zabortegi izateari > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Bi ardatz

PELLO OTXANDIANO > 11

GAUR8

2019ko ekainaren 15a | XIII. urtea • 624. zenbakia
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



EUSKARAK, LEHEN MAILAKO BOSTEKOA

GIZONEZKOEN FUTBOLEKO LEHEN MAILAN BOST EUSKAL TALDE LEHIATUKO DIRA DATORREN
DENBORALDIAN, BOST ENTRENATZAILE EUSKALDUNEN AGINDUETARA. BOSTAK, EUSKAL
HIZTUNAK ETA EUSKARA MAITE DUTENAK. DATUA, BEREZIAZ APARTE, AUKERAKOA IZAN DAITEKE,
BEGI-BELARRI ASKO EGOTEN DIRELAKO FUTBOLA DEN PULPITU HORRI BEGIRA. > 12

Gorka RUBIO | FOKU



**Asiako hego-ekialdeak uko egin
dio Mendebaldearen zabortegi
izateari** 04

**Ikasleen sufrimendu psikologikoa,
aztergai Britainia Handian** 08

**Euskara, Lehen Mailako bost
entrenatzaileren ahoan** 12

**Matxismoaren eta kontsumoaren
arteko lotura, «Fabricando
mujeres» web interaktiboan** 22

Sarean 26

In fraganti: Libana Taboada 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Etorkizuneko
aurrekontuak, ongizatean
oinarritutakoak

10 **Oier Gorosabel:** Sorbaldako
luxazioak

11 **Pello Otxandiano:** Bi ardatz

19 **Nekane Zinkunegi**
Barandiaran: Mozkorraldi itsua

19 **Joxean Agirre:** Gutunak

20 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
Testuingururik gabe

21 **Joana Garmendia:** Situazio-
ironia sinestunentzat da

25 **Unai Gaztelumendi**

30 **Itziar Elizondo Iriarte:**
«Free? lan? ce»



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Etorkizuneko aurrekontuak, ongizatean oinarritutakoak

Zeelanda Berriak albiste izaten jarraitzen du, oraingo honetan, Jacinda Ardern lehen ministroak ongizatean oinarritutako lehendabiziko aurrekontuak aurkeztu dituelako. Proposamenak eztabaida interesgarria piztu du gizartean. Batzuek uste dute propaganda besterik ez dela. Esaten dute orain artean Ardernek egin duen bakarra –ez ditu oraindik ere bi urte bete karguan– gobernu atsegin eta garden baten irudia ematea izan dela, eta ongizatean oinarritutako aurrekontuen planteamendua politika horren adibidea dela. Beste batzuek, aldiz, ikuspegi berritzailea babestu dute.

Planteamenduaren abiapuntuak ez du zalantza asko sortzen: aberastasuna dirua baino askoz gehiago da. Ildo horretan, barne produktu gordina adierazle moduan motz gelditzen da. Gainera, eztabaida gero eta handiagoa da barne produktu gordinak benetan zer neurtzen duen gainean. Fundamentuz, ez du ezer neurtzen: ez ekonomia batek sortzen duen aberastasuna, ez ekonomia horren jarduna, ezta ekonomia horren eragina ere bere inguruan. Hala ere, ordezkorik ezean, adierazle horretara jotzen da, nahi gabe bada ere, behin eta berriz. Ondorioz, edozein aurrekontu publikoren helburu nagusia, inplizituki bada ere, barne produktu gordinaren hazkundera izaten da.

Ongizatean oinarritutako aurrekontuak martxan jartzeko bestelako adierazle bat erabiltzea erabaki du Zeelanda Berriko Gobernuak eta Bizi Estandarren Erreferentzia Markoa deitu dio. Marko horrek dozena bat esparrutako adierazleak biltzen ditu. Nagusienak osasuna, etxebizitza, diru sarrerak, ingurumena, enplegua, hezkuntza eta segurtasuna dira. Adierazle ezberdinak erabiliz, aurrekontuen helburuak ere dibertsifikatu egiten dira. Proposamenaren aurkariak diote ez dagoela inongo aldaketarik; azken finean, kalitatezko hezkuntza edo osasungintza lortu ahal izateko ba-

liabideak behar direla eta bakarrik ondo funtzionatzeko duen ekonomia batek emango dituela. Egia da baliabideak behar direla, baina auzia ez da horretara soilik mugatzen. Esate baterako, Nazio Batuetako Garapen Iraunkorreko Emaizten arabera osatzen den munduko zoriontasun zerrendan Zeelanda Berria zortzigarren lekuan dago, herrialde nordikoen atzetik eta Australiaren aurretik. Hala ere, Zeelanda Berriak munduko gazte suizidio proportzio handienetakoa dauka. Hori, izugarritzko gizarte arazoa izateaz gain, kalte ekonomiko handia ere bada herrialde batentzat. Horregatik, ongizatean oinarritutako aurrekontuen gaiari heldu eta 1.900 milioi dolar zeelandaberritar bideratuko dituzte osasun mentaleko zerbitzu unibertsala antolatzeke. Aurreikusten dute 325.000 lagunek erabiliko dutela hurrengo bost urteetan. Osasun metala bezala, umeen pobrezia aurre egitea, trantsizio ekologikoa sustatzea edota indarkeria matxistari aurre egitea ere lehentasun izango dira besteak beste.

Horrelako ekimenak abian jartzeak helburu ezberdinak zehaztea, adierazle berriak asmatzea eta ondoren ebaluazioa egitea eskatzen du

Oro har horrelako ekimenek mugak badituzte ere, asko balio dute politika publikoen lehentasunak zabaldu eta hobeto finkatzeko. Genero ikuspuntutik landutako aurrekontuak dira beste adibide bat. Helburu ezberdinak zehaztea, adierazle berriak asmatzea eta ondoren ebaluazioa egitea eskatzen dute, eta inertzia burokratikoak apurtzeko oso eraginkorrak izaten dira. Ildo horretan, ongizate edo genero ikuspuntutik aurrerapenak mugatuak badira ere, baliabide publikoen kudeaketan aldaketa garrantzitsuak ematen dira; eta hori ona da gastu publikoan behar baino garrantzi gutxiago duten kolektibo guztientzat. •

INGURUMEN KRISIA

Asiako hego-ekialdeak uko egin dio Mendebaldearen zabortegei izateari

Maiatzaren 30ean Kanadako Estatuak bidalitako itsasontzi batek sekulako hondakin pila kargatu zuen Filipinetan. Birziklatu ezin diren edo toxikoak diren 1.500 tona hondakin eraman behar zituen berriz Ameriketako herrialdera, 2013an eta 2014an legez kontra inportatutakoak zirelako, Manilako agintarien arabera.

Egun horietan ere, Malaysiako Gobernuak tankerako operazio bat jarri zuen abian, 3.000 tona hondakin sortutako herrialdeetara itzultzeko. «Inportatutako hondakin plastiko kutsatuak bueltatzen jarraituko dugu. Kontainer ho-

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Asiako hego-ekialdeko herrialdeek birziklatu ezin diren hondakin plastikoak hartzeari utzi egin diote eta kasu batzuetan sortutako lurraldeetara bidali dituzte. Arazoa, beraz, gehiegi kontsumitzen dugun herrietara itzultzen ari da. Hondakinen inguruko orain arteko planteamendu asko okerrak zirela ederki asko frogatuta geratu da.

riek geure ingurumen legea bortxatzen duten deklarazio faltsuak aurkeztuta eta beste-lako irregulartasunak eginda sartu ziren herrialdera», adierazi zuen Yeo Bee Yin Energia, Zientzia, Teknologia, Ingurumen eta Klima Aldaketako ministroak. Oso esanguratsua da Gobernuak kide horri eman


dioten titulua. «Birziklatzearen aitzakiarekin, zaborra salerosten dute. Plastikoa erretzeak eragiten duen kalitate txarreko airea arnastu behar dugu malaysiarrok eta horrek osasun arazoak sortzen ditu», erantsi zuen.

Txinak birziklatu ezin diren hondakin plastikoak inporta-

tzea debekatu zuenetik, Asiako hego-ekialdeko estatueta desbideratu zen negozio zikin hori: Malaysiara, Thailandiara, Filipinetara eta Indonesiara batez ere. Thailandiak marka guztiak hautsi eta aurreko egoeran baino %1.000ko (ondo dago datua) hazkundera izan zuen, inportatutako hondakin plastikoen kopuruari dagokionez, Gaia izeneko aliantzak egin dituen kalkulu arabera.

Greenpeace nazioarteko gobernu kanpoko erakundeak emandako datuen arabera, Txinaren debekuaz geroztik Malaysiak askoz ere hondakin gehiago inportatu zuen. Iazko urtariletik uztaileira, Japonia, Ameriketako Estatu Batuak eta Britainia Handia izan ziren tankerako esportazio gehien

Herritarrak, New Delhi
Indiako hiriburuko ekialdean dagoen Ghazipurko zabortegei erraldoiaren aurrean. Datorren urtean zabortegeia Taj Mahal monumentua bera baino altuagoa izango da, Nazio Batuen arabera.
Prakash SINGH | AFP



egin zituzten herrialdeak. Gerroztik Malaysiako Ingurumen sailak zorroztu egin du esportazioei buruzko araudia, birziklatu ezin daitekeen plastikorik ez inportatzeko. Ondorioz, Britainia Handiak, Herbeherek, Alemaniak, Singapurrek, Norvegiak eta frantses Estatuak bidalitako hondakinek azterketa zailagoa pasa behar zuten herrialdera iritsi ahal izateko.

DUTERTEREN MEHATXUA

Hondakinak sortu diren herrialdeetara itzultzea gatazka diplomatiko baten azken kapitulua baino ez da. Herrialde aberatsek hondakin gehiegi sortzen dute eta, normalean, ez dute behar bezala jasotzen, gai bakoitza ondo bereizita alegia. Asiako herrialdeek, Txinak hasiera batean eta gero hego-ekialdekoek, inportatu egiten zituzten hondakinok, behar bezala prozesatzeko. Teorian behintzat.

Britainia Handiak, "The Guardian" egunkariak emandako datuen arabera, urte bakar batean, 2016an, 10.000 igerileku olimpiko betetzeko adina hondakin esportatu zituen. Urte hartan, Txinak mundu osoan esportatzen ziren hondakin plastikoen erdia prozesatu zuen. Baina Pekingo agintariek, ingurumen arloan oso irudi txarra zutela-eta, ja-



Erdian, Yeo Bee Yin, Malaysiako Energia, Zientzia, Teknologia, Ingurumen eta Klima Aldaketako ministroa. Mohd RASFAN | AFP

rrera aldatzea erabaki zuten. Eta hondakin horiek inportatzeari ezetz esan zioten 2018an. "Negozioa" beste herrialdeetara joan zen. Asiako hego-ekialdeko herrialdeak «Mendebaldearen zabortege» bihurtzen ari zirela salatu zuten adituek.

Gobernuek aurkako ahaleginak egin arren, birziklatzerik ez dauden hondakinak munduko bazter hartara iristen segitu zuten. Teorian, herrialde aberatsek Asiara bidaltzen zituzten birziklatzeko moduko hondakinak, bertan prozesa ditzaten: lanpostu ugari eta irabazi ederrak herrialde pobrentzat. Mendebaldeko herrialdeak, gainera, birziklatze kopuru hobeak aurkezteko moduan geratzen ziren. Guztiak pozik, ustez behintzat.

Baina Estatua bera pobrea baldin bada, ezin ditu beteara-

«Birziklatutako» hondakinen zabortegea

Malaysiak kutsatutako 3.000 tona hondakin itzuliko dizkie bertara bidali zituztenei. Ez dute ustez «birziklatutako» hondakinen zabortege bihurtu nahi.




Malaysiara hondakin plastikoak esportatzen dituzten herrialdeak...



Eta gehien bidaltzen dituztenak dira... (milaka tonatan)



Hondakin plastikoen sorrera eta azken helmuga



«Inportatutako hondakin plastiko kutsatuak bueltatzen jarraituko dugu. Geure ingurumen legea bortxatzen duten deklarazio faltsuak aurkeztuta sartu ziren herrialdera»

Asiako herrialdeek, Txinak hasiera batean eta gero hego-ekialdekoek, inportatu egiten zituzten hondakinak, behar bezala prozesatzeko. Teorian behintzat

zi onartu dituen arauak. Ekologistek salatu dutenez, herrialde industrializatuek esportatutako hondakin ugari toxikoak, teknologikoak eta materia degradaezinetakoak ziren. Aileen Lucero EcoWaste gobernuz kanpoko erakunde-ko koordinatzailearen arabera, «hondakin kutsakor horiekin lan egin behar duten langileak eta hondakinak jasotzen dituzten komunitateak, normalean oso pobreak direnak, izaten dira egoera horren biktima nagusiak».

Nabarmentzen du hondakin horiek bidaltzea legez kontrakoa izan zela: «Filipinetako legediak gai toxikorik ez duten hondakin plastiko birziklagarriak inportatzea onartzen du, baina hona benetan iritsi zena sailkatu gabeko nahaspila zen: hondakin elektronikoak, erabiltako pixoihalak eta plastikozko botilak, guztia ondo nahastuta».

PORROT EGIN DUEN MITOA

Rodrigo Duterteren Gobernuak hilabete egin zuen Kanadako estatutuen eta azkenean Justin Trudeau lehen ministroak onartu zuen ontzi bat bidaltzea: 190.000 dolar gastatu ditu Ottawak 69 kontainer «herriratzeko». Urteak egin zituen Ameriketako Estatuak Manilari ezikusiarrena egiten. Esaten zuten Chronic Plastics konpainiaren transakzio bat besterik ez zela, baina Duterte ez zegoen horrelakoak berriz entzuteko: «Gerra deklaratu diegu. Kontainerak itsasontzi batean kargatuko ditugu eta Kanadari jakinaraziko diot bere zaborra etxeko bidean dela, sekulako ongietorria egin diezaioten edo, nahi badute, hondakinak jateko».

Dutertek «gerra» hitza erabili bazuen ere, ez zen horrela-



korik izan. Asiako herrialdeak Ameriketakoan dituen ordezkariekin hitz egin zuen, pertsonal diplomatikoaren zati bat etxera eraman zuen eta goi karguei Kanadara bidaia ofizialak egitea debekatu zien. Aldi berean, ehunka lagunek protestak egin zituzten Kanadak Manilan duen enbaxadaren aurrean.

Tentsioak gora egin zuen baina gerrarik ez da hasi. Edonola ere, ez dira Kanadakoak

arazoak eragiten dituzten hondakin bakarrak, azken asteotan Hego Korea, Hong Kong eta Australiako hondakinak dituzten kontainerrak aurkitu baitituzte Misamis hiriko portuan. «Zabor hori ez da onartzeko modukoa. Erabat gaitzesgarria da. Herrialde aberatsen zabortegi izateari uko egiten diogu –esan zuen Abigail Aguilar Filipinetako Greenpeace erakundeko zuzendariak–. Asiako hego-ekial-

Indonesiako Aceh lurraldeko Meulaboheko zabortegia gustukoa dute bertako lertxunek eta behiek.
Chaideer MAHYUDDIN | AFP

dea zabortegi moduan ikusten duten herrialdeei beren hondakinak murrizteko garaia iritsi zaie. Orain arteko birziklatzea porrot egin duen mito bat da».

Agintariek beraiek esplikatuakoaren arabera, «ezkutuko merkatu» bat sortu zen: legez kontrako zentroetara eramaten zuten zaborra eta bertan erre egiten zuten, gizakion

Britainia Handiak, «The Guardian» egunkariak emandako datuen arabera, urte bakar batean, 2016an, 10.000 igerileku olinpiko betetzeko adina hondakin esportatu zituen

Asiara bidaltzen zituzten birziklatzeko moduko hondakinak: lanpostu ugari eta irabazi ederrak nazio pobreentzat. Mendebaldea birziklatze kopuru hobeak aurkezteko moduan zen!

COCA-COLA BOTILAK BAZTER GUZTIETAN AGERI DIRA

Greenpeacek eta Break Free From Plastic mugimenduak munduko 42 herrialdetan egin duten ikerketa baten arabera, Coca-Cola konpainiak ekoiztutako produktuen hondakinak aurkitu dituzte 40 herrialdetan. Ikerlariak 187.000 hondakin zati aztertu zituzten eta ondorioztatu zuten PepsiCo eta Nestle konpainiako produktuen hondakinak ere oso zabalduta daudela. «Kutsadura plastikoaren krisia betikotzeko konpainia horiek duten zereginaren frogak ukazina eskaintzen du geure kontu-ikuskapenak. Berreskuratu ezin diren plastikozko ontziak ekoiztuta, planeta eskala handian suntsitzearen errudun dira», adierazi du Von Hernandez kanpainako eledunak. Ur sakonenetan ere, Marianetako itsas hobian, plastikoa aurkitu berri dute ikerlariak 10.935 metroko sakoneran, BBC kateak jakinarazi duenez.

osasunarentzat eta ingurumenarentzat oso kaltegarri dena. Leku aberatsetan debekatuta dago horrelako hondakinak erretzea, eragiten duten kea oso toxikoa delako. Horrexegatik Mendebaldeko herrialde askok alternatibarik merkeena aukeratu dute: Asiara bidali, bertako enpresa askok diru gutxiren truke hondakinak onartzen baitituzte. Bost axola zabor horrekin zer egiten duten!

Sistema gaizki funtzionatzen ari da, Txinak hondakinak ez inportatzea erabaki zuenetik garbi ikusten denez. Horrenbeste plastiko ekoiztea eskatzen duen eredia aldatu eta kalitate txarreko gaiak debekatu beharrean, «azken markadotan egin duguna kontsumoa bultzatzea izan da, birziklatzearen aitzakiarekin», Alodia Perez Lurraren Lagunakeko kideak salatu duenez.

Europako Batzordeak, Europar Batasunaren “Exekutiboa”, zerga bat jarri nahi du abian plastiko gutxiago kontsumitu dezagun. Neurri hori eraginkorra den ala ez aurrerago ikusi beharko da. Orain arte

«Hondakin kutsakorrekin lan egin behar duten langileak eta hondakinak jasotzen dituzten komunitateak, oso pobreak direnak, izaten dira egoeraren biktima nagusiak»

«Filipinetako legediak gai toxikorik ez duten hondakin plastiko birziklagarriak inportatzea onartzen du, baina hona benetan iritsi zena sailkatu gabeko nahaspila zen»

plastikoa birziklatzea zen kontua eta horren ondorioak dagoeneko kalkulatuta dituzte adituek. Europako Ingurumen Agentziak egindako txosten batek onartu duenez, «birziklatze helburuak ezarrita», Europar Batasunaren politikak hondakinak beste herrialdeetara eramatea bultzatu du.

Arazoa ez du konpondu, baina urrutira eramanda, konponduta dagoela dirudi. 1995 eta 2007 artean, birziklatzen ziren plastikozko ontzien kopuruak gora egin zuen: 10 milioitik 14 milioira. Epe berean, Asiara bidaltzen zen plastikozko ontzi kopuruak %1.100eko hazkundera izan zuen.

Plastiko zatiak itsasoan, Marseilla hiriko uretan. WWF erakundearen arabera, frantses Estatuak sortutako 10.000 tona plastiko iristen dira urtean Mediterraneo itsasora. Boris HORVAT | AFP



USTE BAINO MIKROPLASTIKO GEHIAGO AURKITU DUTE KALIFORNIAREN PAREAN

Ameriketako Estatu Batuetako zientzialariek frogatu berri dute Kaliforniaren parean dagoen Monterrey badiako ur sakonetan, Ozeano Bareko erdialdean dagoen «plastikozko uhartean» baino mikroplastiko gehiago dagoela. MBARI institutuak egin du ikerketa eta “Scientific Reports” aldizkariak eman ditu argitara emaitzak eta ondorioak. San Diegoko Kaliforniako Unibertsitateak ere esku hartu du lanean.

Bost milimetro baino gutxiago duten plastiko zatiei mikroplastiko esaten diete adituek. Ikerlariak lehen aldiz berretsi dute Monterreyko eremu pelagikoan, sakonera ertaineko uretan alegia, orain arte uste zen baino mikroplastiko gehiago dagoela. Ikerlariak jakinarazi dute plastiko zati horiek gizakiok kontsumitzen ditugun produktuetatik sortutakoak direla eta dagoeneko itsasoko animalien dietan sartuta daudela, azaleko zein hondoko animaliek jan egiten dituztela. Eta arraina jaten dugun gizakiok, ere bai.

GAUR8n «plastikozko uhartea» deitu genion Ozeano Barekoari eta beste egile batzuek «Zazpigarren kontinentea» esaten diote. Zientzialariek kalkulatu dute uneotan 3,4 milioi kilometro koadroko azalera duela (Euskal Herrikoa 21.000koa da), Hawaii artxipelagoaren eta Kaliforniaren artean dagoela eta 100 milioi tonako pisua duela. Gaur egun zientzialariek badakite tankerako «uharteak» ozeano guztietan ditugula, eta itsaso jakin bateko «irla» txikiak handienarekin bat egiteko joera izaten dutela. «Geure aurkikuntzek gero eta ebidentzia zientifiko gehiagok esaten dutena indartu dute: planetako habitatik handiena diren ur sakonak hondakin plastiko txikiak depositurik handiena direla», jakinarazi du Anela Choy ikerlariak. Animaliek, karramarro gorri pelagikoek esaterako, azaletik gertu jan egiten dituzte mikroplastikoak eta hondora eraman, pieza horiek ur sakonetan duten proportzioa azaltzen laguntzen duena.

Bost eta mila metro arteko sakoneran 26.000 laginetik gora hartu zituzten ikerlariak, bertan bizi diren espezieek jaten dutena aztertzeaz gain. Karramarro horien barruan aurkitu dituzten mikroplastikoak edalontziak eta arropa egiteko erabiltzen den PET polietileno tereftalatoa ziren, batez ere. Eremu fotikoaren (eguzki-argia hartzen duten azaleko urak) beheko aldean eta itsasertzetik urruti samar aurkitu dituzte plastiko kontzentrazioak handienak. Horrek esan nahi du, zientzialarien arabera, plastikoak itsasoetan eragindako kutsadura orain arte uste zena baino askoz ere larriagoa dela. Eta gizakiok leku askotan ditugun joerak ikusita, kutsadura hori hazten ari dela.

HEZKUNTZA

Ikasleen sufrimendu psikologikoari begiak zabaldu dizkio Britainia Handiak

 JENDARTEA / France-Presse

«Osasun mentala zaintzeko bideratzen diren baliabideen arloan ere munduko onenetakoak izatea nahiko nuke». Britainiar ministro baten hitzak dira, ikasleen artean asko hazten ari den sufrimenduarekin lotura zuzena dutenak. Gehiegizko lehiak antsietatea eta depresioa eragiten ditu eta unibertsitateak horretara egokitzen saiatzen ari dira.

Greg izeneko ikasleak hogeitun 2013an, Londres hiriburuko unibertsitate handi batean Enpresen Administrazioa ikasten ari zenean. Berak France Pressi esan dionez, garai hartan astean lauzpabost aldiz ateratzen zen gauean, «cannabisa erretzera eta edatera», beste modurik ez baitzuen lo egitea lortzeko eta, aldi berean, ordu batzuetan egunero jasaten zuen sufrimendu psikologikoa ahazteko. «Erabat deprimituta

nengoen», adierazi du orain, 26 urte beteta dituenean. Bere kasua ez da bakarra, The Insight Network erakunde-ko psikiatrek Erresuma Batuko 37.500 gazterekin hitz egin ondoren nabarmendu dutenez. Elkarrizketatu askok onartu zuten legez kanpoko drogak eta alkohola kontsumitu izan dituztela ikasle bizitzarekin lotutako «zailtasunei aurre egiteko». Eta ikerlarien galderak erantzun zituzten bost ikasletik batek onartu zuen ezagutu duten estutasunak desoreka mentalak, depresioa eta antsietatea eragin dizkietela. Ikerketa egiteko 140 unibertsitateko ikasleekin hitz egin zuten eta txostena joan den martxoan argitaratu zen. Dominique Thompson doktoreak argitu du antsietatea

Bristolgo Unibertsitateak ikasleei laguntzeko bi zerbitzu berezi jarri zituen abian suizidioen fenomenoak gora egin zuenean, 60ren bat langilerekin.
Geoff CADDICK | AFP



sufritzea «ez dela azterketen garaian zertxobait estresatuta egotea». Hogei urtean unibertsitateetako ikasleekin lanean aritu ondoren, berak garbi dauka antsietatea jasatea irakurtzeko gauza ere ez izatea dela; klasera joateko kemenik ez izatea eta logelatik ateratzeko gai ez izatea da». Eta depresioa jasateak suizidatzeko aukeran pentsatzea ekar dezake.


Fenomenoaren berri badute agintariek. Britainiar Gobernuak adierazi izan du erabat kezkatuta dagoela ikasleen sufrimenduarekin eta orain hila-bete batzuk iragarri zuen lantalde bat eratuko duela arazoa behar bezala aztertzeko.

Lantalde horren asmoa litza-teke beren lehen ikasturtean gazteei laguntza ematea, urte hori oso garrantzitsua izaten baita unibertsitateko girora egokitzeko.

PERFEKZIONISMOA

«Geure unibertsitateak punta-puntakoak dira, munduko onenetakoak arlo guztietan. Osasun mentala zaintzeko bideratzen diren baliabideen arloan ere munduko onenetakoak izatea nahiko nuke», esan zuen Damian Hinds Hezkuntzako Estatu idazkariak.

Andrew Hill-ek, Yorkeko St John Unibertsitateko ikasleen ongizateari buruzko ikerketa taldeko zuzendariak, «perfekzionismoa» ikusten du egoera horren atzean dauden arrazoen artean. Bere ustez, errealitatean oinarrituta ez dauden gehiegizko itxaropenen eraginez, perfekzionismoa gero eta handiagoa da. «Ikasleak akatsak egitearen beldur» dira. Baita «besteek zure akatsa antzematearen beldur ere», Hillek France-Presseri jakinarazi dionez. Beraz, porrot egitearen beldurra eta autokritika zorrotzak ikaslea erabat isola-



tzea eragin dezakete.

«Gaur egun diploma bat edukitzea ez da nahikoa», adierazi du Dominique Thompson-ek. Adituaren iritziz, ikasleen artean desoreka mentalek gora egitea nazioarteko arazo bat da gaur egun, «une honetan gauza guztiak baitira lehia».

«Dibertigarria eta lasaigarria izan daitekeen edozein gauza une honetan txapelketa moduko zerbait bihurtu da sare sozialetan: pastel bat egitea, margotzea edo makillatzea ere lehia bihurtu dira, eta egoera horretan gazteek zazpi egunetako 24 orduetan mikroskopiotik begiratzen dietela sentitzen dute».

Egoera gurasoek larriagotu dezakete. Kasu askotan aita eta amaren pisua gehiegizkoa da ikasleen bizitzan, Thompson doktorearen iritziz. Bera lehiazkoak ez diren jolasen eta ikasleei porrota kudeatzen erakustearen aldekoa da.

Andrew Hillek unibertsitate-entzako gomendioa du: bere langileei «oinarrizko forma-

zioa» eskaintzea, «arazo mentalen sintomak eta seinaleak ezagutzen ikas dezaten».

Hori teoria hutsa da Gregentzat. Berak laguntza eskatu zuen 2013an, baina arrakastarik gabe. «Liburu batzuk irakurtzeko esan zidaten, zein telefono zenbakira deitu ere adierazi zidaten, arazoari buruz hitz egitea proposatu... Baina ez ziren nirekin harremanetan gehiago jarri zortzi aste pasa ziren arte. Horrek frustrazioa eragin zidan eta azkenean esan nien dagoeneko ez zitzaidala interesatzen», kontatu du.

Egoera hori ikusita, azken

«Ez ziren nirekin harremanetan gehiago jarri zortzi aste pasa ziren arte. Horrek frustrazioa eragin zidan eta azkenean esan nien dagoeneko ez zitzaidala interesatzen»

Ikerlarien galderak erantzun zituzten bost ikasletik batek onartu zuen ezagutu duten estutasunak desoreka mentalak, depresioa eta antsietatea eragin dizkietela

Ikasleei porrota kudeatzen erakustearen aldekoak dira espezialista asko, porrota saihestea ez baita beti posible izaten.
GAUR8

urteotan unibertsitate askok estrategia aldatzea erabaki dute. Mark Ames Bristolgo Unibertsitateko ikasle zerbitzuen zuzendariak azaldu duenez, «garai batean ikasleek laguntza gehigarriren bat behar duten momentuan kontzentratzeko joera izaten genuen». Baina 2016ko tragediak joera hura hankaz gora bota zuen. Urte hartan bederatzi ikaslek beren burua hil zuten eta, ondorioz, unibertsitateak bi zerbitzu berezi jarri zituen abian irailean, 60ren bat langilerekin. Ikasleei ongizatearen garrantzia ulertzen laguntzen diete; esate baterako, lo gehiago egin dezaten animatuz. Notak jartzeko erabiltzen zuten sistema ere aldatu dute. Baita azterketen maiztasuna bera ere.

PROTOKOLO BERRIA

Edonola ere, mugimendu horiek ez dira nahikoa, Natasha Abrahart ikaslearen gurasoen iritziz: iazko apirilean urkatu zuen bere burua, hogeitazituela, erabat beldurtuta zeukan ahozko azterketa bat egin baino lehen.

Birminghameko Unibertsitatean estrategia aldatzen hasi dira: kasu bakoitza aztertzen zuten lehen, eta orain «marko estrategiko» bat prestatzen ari dira. London School of Economics fakultatea, berriz, protokolo bat egiten ari da.

Gregi ondo iruditzen zaio betiko joerak aldatzeko borondate hori. Berak bost urte egin zituen ezer ikasi gabe, eta azkenean Geologia ikastera itzuli zen unibertsitatara. Hori bai, beharrezkoa zuen laguntza psikologikoa campusetik kanpo aurkitu zuen: astean bitan joaten da osasun sistema publikoak eskaintzen dituen talde-terapietara.



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Sorbaldako luxazioak

noiz aipatu dugu, ebolutiboki, primate-ondako nolako abantaila den sorbaldan garatu dugun mugikortasun handia. Hori esker, ordenu honetako espezieok eskua gorputzeko edozein lekutara eraman dezakegu, eta hori oso lagungarria da janaria eskuratzeko, borrokatzeko edo oinarrizko beste funtzio askotarako. Mugikortasun handi horrek, ostera, badu bere prezioa: aurreko artikulubatean tendoietako arazoak azaldu genituen, eta, gaurkoan, hausturekin batera muskulu-eskeletu sisteman arruntenak diren arazo traumatologikoez arituko gara: luxazioak.

Giltzadurak, oro har, hezur bi edo gehiagoren arteko loturak dira: kapsula batean bilduta daude, eta lotailuek egonkortasuna ematen diete; egitura horiek malguak dira eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, giltzadurari mugitzeko aukera uzten diote, tope batzuen artean. Tope horiek gainditzen badira (mugimendu gogor edo kolpe baten ondorioz, eskuarki) luxazio bat gertatu dela esaten dugu.

Bistan denez, asko erabiltzen diren eta mugikortasun handia duten artikulazioek dute luxazio bat sufritzeko aukera gehien; horietako bat da sorbalda. Sorbaldako luxazio gehienetan lotailuen euste-ahalmena gainditu egiten da, baina kapsula ez da hondatzen. Kasu batzuetan, giltzadura berez itzultzen da postura normalera (hezurak berriro "bere lekuan sartuz"), baina beste batzuetan ez: horrelakoetan, pazienteak ezin izaten du besoa erabili, eta min handia izaten du. Hori horrela, lehenatasuna luxazioa erreduzitzea izaten da. Osteon, analgesia (lehen momentuotan lotailu eta kapsuletan hantura mingarria baita nagusi) eta immobilizazioa; horrekin, lesionatutako egiturak bere luzera normalera itzultzea bilatzen da, batez ere gehiegi luzatutako lotailuak.

Immobilizazio fasearen ostean, pazienteak sorbalda gogortuta izan ohi du. Mugikortasuna berreskuratzeko kinesi-



Luxazioa sufritzen duten pazienteen arazoa epeak izaten dira. GAUR8

terapia eta ariketak erabiltzen ditugu, betiere tope normalak gainditu barik. Hori garrantzitsua da, lotailuak oraindik ez baitira gai sorbaldako mugimenduei eusteko, eta, topeak gaindituz gero, luxazioa berriro gerta baitaiteke. Oro har, falta den mugikortasuna berreskuratzeko ez da denbora askorik behar izaten; eta, segituan, hain zuzen ere, helburua gehiegizko mugikortasuna ekiditea izango da. Hori muskuluak indartuz lortuko dugu: muskulu indartsuek nola bait artikulazioari falta zaion egonkortasuna emango diote, eta, euskarri horrekin babestuta, epe ertainera lotailuei beraien sendotasuna berreskuratzen lagunduko diete.

Luxazioa izan duten pazienteen arazo nagusia epeak dira. Izan ere,

behin lehen faseak gaindituta, pazienteak ez du minik eta ustez ondo aurkitzen da. Bere egoeraz jabetzen ez bada, oso erraza da sorbalda behartzea eta, lotailuek duten ahuleziarengatik, sorbalda berriro ateratzea. Hori gertatzen denean, giltzaduraren lotailuak berriro luzatzen dira gehiegi, baina alde batekin: lehen derrigorrez luzatutako egiturak, orain egitura laxoak dira. Laxotasun hori betikitzen bada (behin eta berriro luxatuz), sorbaldaren ezegonkortasuna kroniko bihurtu daiteke, eta horrek dakartzan arazoez gain (edozein momentutan sorbaldak huts egin ahal izatea), lekuz kanpoko mugimenduok giltzadura inguruko beste egiturak ere honda ditzakete, hala nola omoplatoko zulo inguruko kartilagoa edo humeroaren buruko kartilagoa bera. Horregatik, luxazioen osteko berrabil-tze prozesuak sorbaldako beste lesioenak baino diziplina handiagoa behar du. Osatzea ez da bereziki gaitza (fin ibiliz gero emaitzak onak izaten dira), bai ordea pazienteari ulertaraztea, minik ez izan arren, sorbalda indartzen eta egonkortzen jarraitu beharko duela. •

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Bi ardatz

Gaur eratuko dira udalak Hego Euskal Herrian. Iruñean dago interes fokua. Sanchezek zer motako gobernua osatuko duen argitzeke dagoen garaian Nafarroa estatu auzia da beste behin. Ikusteke dago estatu krisiaren zein kudeaketa molde nagusituko den azkenean, eta ondorioz zer motako aliantzak bilatuko dituen PSOEk. Edozein kasutan, hauteskunde emaitzek, datozen lau urteetako mapa instituzionala argitzeaz gain, gizartearen argazki bat ere eman digute, argazki finko bat abiadura bizian aldatzen ari den errealitate sozial batena; krisi-aro globaleko euskal gizartea zertan den.

Emaitzak ikusita esango nuke ETaren ondorengo euskal panorama soziopolitikoa argituz doala pixkanaka. Bi ardatz nagusitan ari da konfiguratzeko euskal gizartea, globalizazioaren testuinguruan erabat txertatuta baina bereizgarri batzuei tinko eutsi nahian. Ardatz kontserbadorea da lehena: krisia bizi dugu, zibilizazio krisi bat. Garai ziurgabeak dira eta asko dugu galtzeko maila indibidualean zein gizarte bezala. Jendeak, daukana galtzeko beldurrez, nahiago du ez arriskatu eta gutxiagorekin gelditu. EAJk oso ondo irakurri du hori eta espazio kontserbadorearen erreferentzia nagusia bilakatu da EAEn. Nafarroan, pultsio kontserbadore hori eskuin espainolistak eta PSNk baliatu dute, eta bai, atera diote atarramendua.

EAJri dagokionez, uste dut aurreko ziklo politikoan hautu estatalista bat egiten zuten sektore kontserbadoreak bereganatzea notizia ona dela herri ikuspegi batetik. Euskal eskalarako desplazamendu bat gertatzen ari da espazio soziologiko kontserbadorean, eta hori ona da. Hau da, gatazka armatuaren testuinguruan espainiar alderdi zentralista erasokor baten aldekoa zen jendea orain autogobernuan sakontzeari uko egiten ez dion –estetikoki baino ez bada ere– euskal alderdi kontserbadore baten aldekoa da. Bada zerbait.

Penagarria dena da hori nola egiten ari diren. Finean, euskal gizartearen mehatxu nagusia EH Bildu dela proiektatuz, noiz eta agintari katalanak Auzitegi Gorenean epaitzen ari diren garaian. Bide batez, Jordi Tu-

rullen azken hitzartzea entzun dut lerro hauek idazten hasi orduko. Biba zuek!

Bigarren ardatz bat ere indarrez ezarri da euskal gizartean: ardatz progresista-soberanista-errepublikazalea. Mobilizazio sozialek erakusten dute gure metabolismo komunitarioa bizirik iritsi dela XXI. mendera. Hauteskunde emaitzak ere nabarmendu dute hori. 2011ko tsunamiaren boz kopurua gaintu du EH Bilduk. Hori izugarritzko emaitza da, are gehiago orain hiru urte non zegoen kontutan izanik. Nafarroara begiratzuz gero, azken hamarraldietako emaitzen serieak erakusten du bigarren ardatz hau indartuz doala eta lehena ahulduz.

Atalaia onean jarri da EH Bildu etorkizuneko erronkei heltzeko. Esango nuke bi direla nagusiki. Batetik, egitasmo independentistaren (bir)definizioa. Manuel Castellsek esana da aste honetan Bilbon: Euskal Herrian eta Katalunian sortzen ari diren proiektu-identitateak dira neoliberalismoaren eta fundamentalismoaren alternatiba, Europa berriaren oinarria. Bigarren, gorpuzte politiko-organizatibo bat beharko du hurrengo hauteskunde zikloan jauzi kualitatibo bat

Hauteskunde emaitzek gizartearen argazki bat ere eman digute, argazki finko bat abiadura bizian aldatzen ari den errealitate sozial batena

emateko. Potentzial handia du garatu gabe oraindik. Azken bi kanpainen erakutsi dute EH Bilduren indargunea bere komunitate bizia dela: jende prestatuena, zintzoena eta konprometituena du.

Badu aukera EAJk espazio kontserbadorean lortu duen transbertsalitate maila espazio progresistan saiatzeko. Ez da lan erraza eta ez dago formula magikorik. Egitasmo emantzipatzaile baten eroale den bitartean *outsider* gisa hartuko du *establishment*-ak, eta era guztietako botere baliabideak erabiliko ditu bere kontra. Arazoa –edo mehatxua– ez baita iragana, etorkizuna baizik, Kataluniak ondotoxo erakutsi duen legez. •

EUSKARA, LEHEN MAILAKOA

Gizonezkoen Lehen Mailan bost euskal talde eta euskara darabilten bost entrenatzaile

FUTBOLA /

Batzuen ustez kasualitatetik joeratik baino gehiago dauka eta badira ikuskera positiboagoarekin ikusten dutenak. Bata edo bestea, datua hor dago eta nabarmentzea merezi du; gizonezkoen futboleko Lehen Mailan bost euskal talde lehiatuko dira datorren denboraldian eta bostek entrenatzaile euskal herritarrak eta euskal hiztunak izango dituzte, hasieran, behinik behin. Bost entrenatzaileekin hitz egin dugu datu eder horri buruz eta bostek garbi daukate aprobetxatu beharreko egoera dela, begi eta belarri asko izaten direlako futbolaren pulpitura begira.

Aitor AGIRREZABAL

Berriatuan sortua 1978an, jokalaria urteetan Realaren gazte mailetatik Eibar B taldera egin zuen jauzi; eta Lemoa, Beasain, Elgoibar, Amorebieta eta Portugaleterekin Bigarren B Mailan eta Hirugarren Mailan jokatu zuen. 2007an jokatzeari utzi eta herriko taldea entrenatzen hasi zen. Ostein, Elgoibarrekin igoera lortu eta Realak harrobian entrenatzeko fitxatu zuen. Lehen talderaino iritsi, Soriatik pasa eta Iruñera iritsi zen iragan udan. Bederatzi hilabetea, taldea Lehen Mailara eraman du.

Zorionak. Nolakoak izan dira igoeraren osteko egunak?

Ospakizun asko. Pila bat, baina arrunt polita. Helburua lortzen duzunean, baina, batez ere hainbeste jende pozik ikusten duzunean, zurekin ospatzeko asmotan, oso polita izaten da. Futbolak daukan gauza politenetakoa hori da, jendea zoriontsu egiten duzu eta haiekin ospatu dezakezu.

Igoera ospatzen ari zinetela, bertso bat bota zenuen udaletxetik eta birala bilakatu zen. Aurretik

JAGOBA ARRASATE

OSASUNAKO ENTRENATZAILEA

«Futbolak daukan oihartzuna baliatu dezakegu gure hizkuntza zabaltzeko eta hedabideek erantzukizuna duzue»



pentsatutako zerbait izan zen?

Ez zen aurretik pentsatutako zerbait izan. Sorian ere bota nuen bertsoren bat gazteleraz. Eta Elgoibarren ere, igo ginenean. Pozik nagoenean, atera egiten zait. Egoera horretan zerbait normala da niretzako. Bertsoa beti egon da oso presente nire bizitzan. Lagunak bertsolariak ditut eta iruditzen zait ospakizunetan erabili daitekeen gauza bat dela. Udaletxean geunden eta pentsatu nuen unea zela, jakin gabe gero ze oihartzun edukiko zuen. Komunikatzeko beste era bat da bertsoa.

Ulertzen duzu Iruñeko batentzat zer suposatzen duen euskaraz, Osasunaren entrenatzaileak, bertso bat botatzea udaletxetik?

Momentu horretan ez. Gero bai, hasten zara mezuak jasotzen eta esaten dizute hori, Iruñean, euskararentzat nolako bultzada den. Momentuan ez nuen pentsatu ze ondorio izango zituen.

Beste batzuetan, txupinazoan kasu, txistuak izan dira euskara erabili denean. Kasu honetan, baina, deigarria izan zen azken esaldia denek zurekin abestu zutela.

Guk euskara oso normalizatuta daukagu. Bigarren entrenatzailearekin [Bittor Alkiza] euskaraz hitz egiten dugu, Richard Sanzol [atezainen entrenatzailea], Oier kapitaina, kanpoko jokalaria batzuk euskara ikasten ari dira eta ospakizunetan ere erabili zuten... Guk gure artean oso presente daukagu. Agian jendearentzako arraroa izan daiteke orain arte ez delako horrela izan, baina guretzako erabat normala da euskaraz aritzea.

Euskaltzale bezala agertu zara, euskararen erabiltzaile eta defendatzaile. Hori globalizatutako futbol mundu batean praktikara eramatea ez da erreza izanen.

Ez. Ikasi dugun dena, kurtsoetan eta abar, beti gazteleraz izan da. Kontzeptuak azaltzea-eta ez da erraza. Norberak eman behar dio itzulpena. Egia da badabilela jende bat orain –Koikili futbolari ohia tartean– metodologia guztia euskarara itzultzen ari dena. Aurrerapausoak eman ematen dira, baina joera beti izaten da erdalduna.

Futbolari eta entrenatzaile izan zara Realean ere. Nola aldatu da egoera futboleko jokatzeko zenuenetik orain arte?

Futbola aldatzen doa. Gehiago zaintzen dira jokalaria. Denek dute entrenatzaile pertsonala, elikadura kontrolatzen dien norbait, gorputza asko zaintzen dute. Horrek kontrapuntu bat ere badauka. Hainbeste zaintzen zara eta gero taldearen zerbitzura jarri behar duzu, eta hori da gure lana. Hori kudeatzea. Nire

kasuan zorte handia izan dut bai Realean bai Sorian bai Iruñean oso aldagela jatorrak aurkitu ditudalako eta izaera horiek kudeatzea erraza izan da. Banakakoak gero eta garrantzi gehiago dauka, sari indibidualek kasu, eta hor guk lan egin behar dugu jokalaria irakusteko garrantzitsuena taldea dela. Ni egon naizen taldean etxeko jende asko izan dugu eta etxeko jende asko egoteak badakar balore batzuk hartuta izatea eta guretzako errazagoa da.

Harrobian egin beharreko zerbait da?

Nik argi daukat kanpoko talde batean egon banintz agian zailago izango zela. Baina azkenean %60 edo %70 etxekoak badira, formatuta datoz eta kanpokoei erakusten diete zer den hau. Zentzu horretan entrenatzaileak asko dauka irabazita.

Hau zer den erakusteko euskarak ere balio du?

Bai, eta uste dut Osasunak zentzu horretan aurrerapauso asko eman dituela. AEKrekin akordio bat sinatu du, aukera ematen die Osasunaren talde ezberdinetako jokalaria eta langile guztiei euskara ikasteko, sare sozialak euskaraz ere kudeatzen ditu... Beharrezkoa da. Iruñea da, Euskal Herria da eta euskal izena duen talde bakarra da Osasuna. Harro egoteko modukoa da klubak euskararen alde eman duen aurrerapausoa.

Entrenatzailea eta kapitaina euskaldunak izateak ere izango du bere garrantzia. Azkenean bi erreferente dira. Lehen lerroko bi aurpegi

«*Bost entrenatzaileak euskaldunak eta euskal hiztunak bagara, aukera polita daukagu hau bultzatzeko. Futbolak daukan oihartzuna baliatu dezakegu gure hizkuntza zabaltzeko*»

«*Euskara beti lotzen da politikarekin, baina nik uste kluba zentzu horretan busti egin dela eta aurrerapausoak eman dituela. Eta ez ahoz bakarrik, baizik eta ekintzetan*»

euskaldunak izateak bultzada bat ematen du, noski.

Askotan kritikatu ohi da futbola errealitatetik urrun bizi dela. Osasunak, baina, aurrerapausoak eman ditu euskararen normalizazioan.

Futbolariak erreferenteak dira eta haiek esaten dutena toki askotara iritsi daiteke. Hala ere, askotan ez digute adierazten uzten. Prentsaurreko batean galderak oso sinpleak izaten dira gehienetan. Askotan galdera horiei erantzutera mugatzen gara eta orduan ez gara jendearengana iristen. Nik eskertuko nuke, ez da-eta gure gauza bakarrik, baizik eta hedabideen ahalegin bat ere. Topikoetara jotzen dugu beti eta zaila da beste zentzu batzuetara iristea.

Futbolak daukan oihartzun hori erabiltzea?

Hori da. Azken egunetan ikusten ari gara Iruñeko haur guztiak Osasunaren kamisetarekin eta jokalariek diotenak seguru daukala garrantzi handia haur horientzako. Baina berriro diot, beti berdinarekin inguruan galdetzen badigute, beti berdina erantzuten dugu.

PP alderdiak Osasunaren zuzendaritza kritikatu zuen «nazionalismoaren besoetan» erortzeagatik.

Euskara beti lotzen da politikarekin, baina nik uste kluba zentzu horretan busti egin dela eta aurrerapausoak eman dituela. Eta ez ahoz bakarrik, baizik eta ekintzetan. Oraindik badugu hobetzeko, batez ere hedabideekin egiten dugun lanean. Adibidez, Oierrekin, elkarrizketa euskaraz egin beharrean,

ETB2rako galdera berdina gazteleraz egiten diote. Umeek Oier ikusten badute ETB2n gazteleraz, pentsatuko dute erdalduna dela eta euskalduna da. Hedabideek erantzukizuna dute. Muga batzuk daude ez digutenak uzten euskaldunoi euskaraz egiten. Pena ematen dit ume bat Oierrengana gerturatzea eta gazteleraz egitea edo Aritz Adurizi edo, bere garaian, Xabi Prietori elkarrizketak erdaraz egitea.

Eta taldeek zer egin dezakete?

Beno, bost entrenatzaileek [Jose Luis Mendilibar, Asier Garitano, Imanol Alguacil, Gaizka Garitano eta Jagoba Arrasate bera] zerbait egin dezakegu. Euskaldunak eta euskal hiztunak bagara, aukera polita daukagu hau bultzatzeko. Futbolak daukan oihartzuna baliatu dezakegu gure hizkuntza zabaltzeko.

Erreportaje hau Lehen Mailako bost euskal taldeek bost euskal entrenatzaile izanen dituztela oinarri hartuta egingo dugu.

Deigarria da historian lehen aldiz 2019-2020 denboraldian gertatzea.

Euskal entrenatzaile pila dago. European zehar ere. Beti egon da harrobi bat. Orain euskararena balio erantsi bat da. Ederra da bost euskal talde Lehen Mailan egotea eta bost euskal hiztun gainera entrenatzaile gisa. Polita izanen da. Ea bostok pozik amaitzen dugun.

Oporrak noiz? Sanferminik bai?

Uztailak 10-11n hasiko gara eta igual egunen bat harrapatuko dut, baina ez uztailaren 6a. Egondakoa naiz udaletxean.

GAIZKA GARITANO

ATHLETICEKO ENTRENATZAILEA

«Irudi publiko bat daukagu eta euskararen etorkizunean gu ere garrantzitsuak gara»

Amagoia MUJIKA TELLERIA

Derion jaioa, baserrian, 1975. urtean. Athleticeko harrobian hazia, geroztik Eibarren, Realean eta Alavesen aritu zen jokalaria. Baita Estatuko beste talde batzuetan ere. 2012an Eibarren entrenatzaile laguntzaile bezala hasi eta hurrengo denboraldian bertan entrenatzaile izatera pasatu zen. Azken bi denboraldietan Athleticen ari da lanean. Euskaraz bizi da, euskara arnasten du eta euskara maite du. Horregatik, oso kontziente da oraintxe dagoen pulpitu horretatik asko eman diezaiokeela hain barruan duen hizkuntzari.

Zer harreman daukazu euskararekin? Euskara zer da zure bizitzan?

Dena da euskara niretzat. Ni Derion jaio nintzen, baserrian, eta txikitatik euskaraz bizi izan naiz; euskaraz berba egin, euskaraz ikasi, unibertsitatean ere euskaraz... Betidanik euskaraz bizi naiz, lagunekin, alabekin... ahal dudan guztiekin.

Futbol munduan, nolako harremana izan duzu euskararekin?

Taldearen arabera. Nire urterik gehienak Euskal Herrian eman ditut futbol munduan. Jokalari bezala, Eibarren eta Realean batez ere, euskaraz aritzeko aukera handia izan dut. Orain Athleticen ere jokalaria askorekin euskaraz hitz egiten dut, baita langile askorekin

ere. Tokiaren arabera, euskarak presentzia gehiago edo gutxiago izan du niretzat futbol alorrean.

Zuretzat garrantzitsua da futboleko euskaraz aritu ahal izatea?

Zalantzarik gabe. Euskarak harreman askoz estuagoa lortzeko aukera ematen dizu, konfiantzazkoa. Harreman berezia sortzen da bi euskal hiztunen artean futbolaren munduan eta, horregatik, nik nahiago dut euskaraz aritu. Gainera, lehen hitza beti euskaraz egiten dut. Gero, badakigu Euskal Herrian erabat euskaraz bizitzea ez dela erraza gaur egun, badirela oraindik euskaraz ez dakitenak, eta horregatik batzuetan ezinezkoa da euskarari eustea.

Futbol mundua gero eta euskaldunago al da?

Ez zait iruditzen. Nire ustez orain kasualitatea da bost entrenatzaile euskaldun eta euskal hiztun izatea Lehen Mailan. Baina hori ez da ohikoena, ez da eguneroko errealitatearen isla. Pena da, baina horrela da.

Batzuen begietara futbolak ez du balio gauza serioetarako. Eta futbola, egungo jendartearen, gauza serioa omen.

Tira, euskarak denerako balio du. Estrategiak eta azalpenak jokalaria guztien aurrean ematen ditudanean, gazteleraz egiten dut, taldean badiarelako

euskaraz ez dakitenak. Baina euskaraz dakitenekin euskaraz egiten dut beti. Azalpen guztiak euskaraz ematen dizkiet. Baina, gero, talde osoaren aurrean hitzaldiak ematen ditudanean edo bideo-gelan lan egiten dugunean, gazteleraz.

Modu naturalean sortzen da.

Bai. Niretzat oso zaila edo ia ezinezkoa da Mikel Balenziagarekin, Mikel San Joserekin edo Adurizekin, adibidez, gazteleraz hitz egitea. Niretzat zaila da, eta, haientzat, berdin. Modu naturalean ateratzen zaigu elkarrekin euskaraz aritzea.

Komunikabideekin izan duzu arazotxoaren bat euskaraz aritu izanagatik. Almeriako kasua sonatua izan zen.

Euskal Herrian ez dago arazo handirik, bi hizkuntzetan aritzeko aukera izaten dugu. Espainia aldera joatean arazo gehiago sortzen dira, hor ez da hain erraza izaten. Baina, orokorrean, gure hizkuntzarekiko errespetua dago eta ez dugu arazorik izaten. Guk prentsaurrekoak euskaraz eta gazteleraz egiten ditugu etxetik kanpo ere. Batzuetan izan ditugu arazoak, baina, aspaldian, ez.

Zuek, entrenatzaile zein jokalaria, komunikabideen aurrean euskaraz aritzea oso garrantzitsua da.

Oso garrantzitsua da eta jakitun naiz. Nik euskara

plazaratzeko erantzukizun handia sentitzen dut. Niri gustatuko litzaidake nire mezua euskaraz soilik plazaratzea, baina ulertzen

dut bizi naizen gizartean eta nagoen klubean gazteleraz ere egin behar dudala. Baina, modu naturalean, nik nahiago dut euskaraz egin.



«Nik konpromiso
handi bat sentitzen
dut euskararekin
publikoki hitz
egiten dudanean; ez
bakarrik Athleticen
entrenatzailea
naizelako, baita nire
izaeragatik ere»

Bestetik, gustatzen zait nire ingurukoek –lagunek, etxekoek, alabek, ezagunek– telebistan ateratzen naizenean euskaraz egiten ikustea. Niretzat hori da hitz egiteko modurik naturalena eta nire ingurukoek badakite. Eta oso garrantzitsua da, era berean, gazteei begira. Haur eta gaztetxo asko gerturatzen zaizkit esanez, «*Garitano, ¿me firmas un autógrafo?*». Akaso ez dute jakingo euskaraz dakidan edo ez... Nik beti bueltan galdetzen diet, «zuk ez dakizu euskaraz edo?». Eta askotan euskarara ekartzen dugu elkarriketa. Jendaurrean edo gerturatzen zaizkidan gaztetxo horien aurrean euskaraz edo gaztelera aritzeak ondorio batzuk dakartza zalantzarik gabe.

Euskarari prestigioa emateko modu bat da. Nire ustez hori oso-oso garrantzitsua da eta zaindu egin behar da. Horregatik saiatzen naiz ahal dudan guztietan euskaraz egiten, bai publikoki agertzen naizenean eta baita ume bat gerturatzen zaidanean ere. Finean, gu asko agertzen gara telebistan, irudi publiko bat daukagu eta euskararen etorkizunean gu ere garrantzitsuak gara. Nik konpromiso handi bat

sentitzen dut horrekin; ez bakarrik Athleticen entrenatzailea naizelako, baita nire izaeragatik ere.

Bost entrenatzaile euskal hiztunak izatea kasualitatea dela diozu. Tira, oso kasualitate interesgarria da. Nola baliatu daiteke? Ni prest nago edozertarako. Publikoki esaten dut, hemendik; norbaiti zeozer bururatzen bazaio euskarari bultzada bat emateko, ni beti prest egongo naiz horren alde egiteko.

Aprobetxatzeko moduko egoera da, ezta? Ez da inoiz gertatu eta ez dut uste epe motzean askotan errepikatuko den gauza bat denik. Nire ustez ez da joera bat. Pentsa, oso zaila da elitean hainbeste entrenatzaile euskaldun egotea eta aurten gertatu egin da –Lopetegi eta Ernesto ere hor daude–. Guztira zazpi euskal entrenatzaile gaude elitean eta hori ere ez da joera. Gertatu egin da eta aprobetxatu egin beharko da.

Inoiz zelairatu al da euskal hiztunak diren hamaika futbolarik osatuta hamaikakoa? Ezetz esango nuke. Horretatik gertuen dagoen taldea Athletic da, guk jokatzten dugulako jokalarri euskaldunekin. Askotan aukera horretatik gertu egoten gara, baina erabat ez dugu lortu. Hamaikakoan askok egiten dute euskaraz, baina, oraindik, guztiek ez. Horretan lan egin beharko dugu, etorkizunean gerta dadin. Beste taldeetan zaila ikusten dut, duten politikagatik, baina Athleticen gerta daiteke eta gertu gaude.

JOSE LUIS MENDILIBAR

EIBARREKO ENTRENATZAILEA

«Gero eta gehiago entzuten da euskara futbol munduan»

Amagoia MUJICA TELLERIA

Zaldibarren jaio zen, 1961an. Jokalari bezala bide oparoa egin ondoren, 1994az geroztik entrenatzaile bezala dabil lanean. Talde asko gidatu ditu, tartean Euskal Herrikoak dezente, eta orain Eibarren ari da. Han hasiko du datorren denboraldia ere. Futbolaren munduan, ahal izan duen guztietan euskaraz egin du. «Euskal Herrian eta kanpoan ibili naiz lanean. Kanpoan, oso gaitza izan da. Baina Euskal Herrian egin dugu euskaraz futboleant, badirelako euskaraz dakiten jokalarriak, laguntzaileak eta bestelako langileak».



«*Ederra da bost entrenatzaileak euskal hiztunak izatea. Ea aprobetxatzen dugun euskarari bultzada emateko*»

Bere ibilbide luzean, aldaketak ikusi ditu hizkuntzaren erabileran, eta aldaketa positiboak gainera. «Iruditzen zait gazteek orain gehiago egiten dutela euskaraz. Lehen gaztelera zen nagusi eta orain gero eta gehiago entzuten da euskara futbol munduan ere».

Jokalari euskaldunekin euskaraz egiten du. «Aurten, Eibarren, bi euskal hiztun bakarrik izan dira taldean, Asier Riesgo eta Anaitz Arbilla, eta biek ondo egiten dute euskaraz. Haiekin euskaraz egiten dut beti».

Eta komunikabideen aurrera ere euskaraz agertzen da. «Normalean, Eibarren partidetan, bai etxean eta bai kanpoan, beti izaten dira galderak euskaraz. Prentsaurrekoak beti euskaraz eta gaztelera egiten ditugu».

Orain gertatu den egoera, Lehen Mailako gizonezkoen bost taldeetan bost euskal hiztun aritzea entrenatzaile, pozteko modukoa dela deritzo. «Ederra da bost entrena-tzaileak euskal hiztunak izate-a. Lehenago izan dira gizonezkoen Lehen Mailan bost talde euskaldun, baina ez bost entrenatzaile euskal-dun eta euskal hiztun. Oso pozgarria da benetan. Ez da-kit denok urte guztian iraungo dugun edo ez, baina zalantzarik gabe pozik ego-teko datua da eta ea aprobe-txatzen dugun euskarari bultzada emateko».

J. ITURRIA- A. MUJICA

Orion jaioa, 1971. urtean. Jokalari ibilbidea osatuta, 2011. urteaz geroztik lan egiten du Realean. Harrobiko taldeetan aritu ostean, 2018ko abenduan hartu zuen Lehen Mailako taldeko gidaritza eta hurrengo denboraldia ere berak hasiko du.

Euskararekin zer-nolako harremana duzu? Zein presentzia dauka euskarak zure bizitzan?

Euskara nire ama hizkuntza da. Nik etxean jaso nuen euskara; amarekin, aiton-amonekin, familiarekin... Zazpi anaia-arreba gara eta eskolan ez nuen euskara jaso. Lagun kuadrillan, Orion bizita, euskara izan da nagusi. Eta gogoratzen naiz hamalau urtera arte mendi taldearen inguruan ibili nintzela. Astebururo Euskal Herriko mendiak bisitatzera joaten ginen eta beti giro euskaldunean mugitu izan naiz. Benito Lertxundiren eta Mikel Laboaren abestiekin hazitakoa naiz ni.

Hala ere, gazteleraz ikasi dudanez, egoera batzuetan gehiago kostatzen zait euskaraz aritzea. Konturatzen naiz egoera batzuetan gazteleraz pentsatzen dudala eta errazago moldatzen naizela hizkuntza horretan. Hori egia da.

Futbolaren munduan euskara erabiltzeko modua izan al duzu normalean? Panorama aldatu al da azken urteotan?

Egia esan futboleko euskara erabiltzeko aukera izan dut, bai Realean eta bai kanpoan. Gogoratzen naiz Vila-realen jokatu nuenean bazirela

IMANOL AGUACIL

REALEKO ENTRENATZAILEA

«Taldean euskaldun asko daudenean, euskarak batu egiten du eta taldeari nortasuna ematen dio»



Jon URBE | FOKU

jokalari euskaldun gehiago eta euskaraz aritzen ginela gure artean. Pentsa, Vila-realeko aldagelan euskara entzuten zen. Hiruzpalau jokalaria euskaldun ginen eta euskaraz abesten ere aritzen ginen askotan! Burgosen ere jokalaria euskaldunekin egin nuen topo eta berdin Cartagenan. Kanpoan izan naizen talde guztietan euskaraz hitz egiteko aukera izan dut. Eta talde horietan guztietan

errespetu osoz tratatu gaituzte euskaraz aritu garenean. Egia esan, ez dut arazorik izan alderdi horretatik.

Batzuetan badirudi euskara ez dela erabilgarri gauza serioetarako.

Nik ez dut horrela bizi. Euskara naturaltasunez erabiltzen dut euskaraz dakitenekin, baita aginduak emateko ere. Gainera,

batzuetan abantaila ere bada, kontrako taldekoek ez gaituztelako ulertzen. Baina jokalaria euskaldunei euskaraz ematen dizkiet aginduak beti. Gainera, euskaldun asko daude taldean eta modu naturalean ateratzen zaigu gure artean euskaraz egitea. Euskaldunei euskaraz egiten dizkiet zuzenketak eta, gainera, esan bezala, horrela arerioa ez da konturatzen zertaz ari garen. *Staff*

teknikoan seitik bost euskaldunak gara eta ia dena euskaraz hitz egiten dugu, kontu teknikoak eta bestelakoak.

Gero, talde osoari zuzentzen naizenean, gazteleraz egiten dut. Baina euskara oso modu naturalean erabiltzen dugu. Egunona ere euskaraz ematen diet denei.

Euskarak batzen al du aldagela?

«Pentsa, Vila-realeko aldagelan euskara entzuten zen. Hiruzpalau jokalaria euskaldun ginen eta euskaraz abesten ere aritzen ginen askotan. Burgosen ere jokalaria euskaldunekin egin nuen topo eta berdin Cartagenan»

«Euskaldun asko daude taldean eta modu naturalean ateratzen zaigu gure artean euskaraz egitea. Euskaldunei euskaraz egiten dizkiet zuzenketak eta, gainera, horrela arerioa ez da konturatzen zertaz ari garen»

Askotan, bai. Taldean euskaldun asko daudenean, euskarak batu egiten du eta taldeari nortasuna ematen dio, zalantzarik gabe.

Komunikabideekin, zer?
Erdia eta erdia esango nuke. Komunikabide batzuekin beti euskaraz egiten dugu, eta, beste batzuekin, gazteleraz. Prentsaurrekoak beti euskaraz hasten ditugu, bai etxean eta bai etxetik kanpo ere. Eta inoiz ez dut arazorik izan. Normaltasunez joan da dena.

Ederra da bost euskal taldeetako entrenatzaileak euskaldunak izatea.
Bai, egoera oso berezia eta oso polita da. Batetik, garrantzitsua da kirol arloan Lehen Mailan hainbeste entrenatzaile euskaldun egotea eta, noski, euskararentzat ere albiste aparta da.

Erreferentzia ederra da euskarari presentzia emateko.
Niretzat oso garrantzitsua da, bai hemen eta bai kanpoan, bost entrenatzaileak euskaraz aritzea. Euskararentzat positiboa izango da, zalantzarik gabe, publikoki gu euskaraz aritzea.

Euskal Herrian jokalarien harrobia ez ezik, entrenatzaileena ere badagoela erakutsi duzue.
Kasualitatea izan daiteke, baina zalantzarik gabe datu garrantzitsua da. Beti egon dira Euskal Herrian entrenatzaile onak eta orain, zortez eta egindako lanari esker, bost euskal taldeetako entrenatzaileak bertakoak gara. Harro egoteko arrazoiak badaude Euskal Herrian.

ASIER GARITANO

ALAVESEKO ENTRENATZAILEA

«Faltan bota dut etxea, baina zaila da zuk nahi duzun lekuan entrenatzea»

Ane URKIRI ANSOLA

Amaitu berri den denboraldian aurreneko aldiz entrenatu zuen euskal talde bat Asier Garitanok (Bergara, 1969). Hilabete batzuk eman zituen Realean, Leganes Bigarren B Mailatik gorengo mailara igo eta mantentzea lortu ondoren. Euskal Herritik kanpo bizi zenean ere, Alacant edo Leganesen adibidez, euskara beti izan du presente. Hori bai, futboleko euskara erabiltzea «zaila» dela onartzen du, horretarako euskaraz mintzatzen diren jokalariai behar baitituzu. Aurten Alavesen bakarra izango du, Martin Agirregabiria. Bada, jada elkartrukatu dituzten hitz bakanak euskaraz izan dira. «Ez da normala» bost euskal talde maila gorenean egotea eta gainera entrenatzaile denak euskaldunak izatea: «Aprobetxatu egin behar dugu».

Urte askoan aritu zara Alacant aldean entrenatzaile, eta, ondoren, Leganesen. Nolakoa presentzia zuen euskarak zure bizitzan?
Ez da erraza euskara bizirik mantentzea, baina zortea izan dut emaztearekin eta familiarekin. Guk gure artean euskaraz hitz egiten dugu eta horri esker mantendu dut. Urte mordoa eman ditut kanpoan, eta

«*Lehen Mailan hartu zuen garrantzia, baina Leganes Bigarren B Mailan entrenatzen nuenean euskal taldeen aurka jokatzeko genuen eta prentsa agerraldiak euskaraz ere izaten ziren, normaltasunez*»

ziur nago hitz, adiera edo aditz batzuk galdu egin ditudala, baina euskara presente eduki dut beti nire bizitzan. Hona etortzean, ahal dudana gehienetan euskaraz aritzen naiz.

Zure ingurukoekin euskaraz normaltasunez aritzen zara, beraz.
Bai, familia eta lagunekin bai. Niri euskaraz hitz egitea gustatzen zait.

Leganesen Lehen Mailan entrenatzaile zinenean, zer suposatzen zuen zuretzat prentsaurrekoak euskaraz eskaintzeak?
Lehen Mailan geundenean

garrantzia hartu zuen horrek, baina Bigarren B Mailan Leganes entrenatzen nuenean ere Euskal Herriko talde batzuen aurka jokatzeko egokitu zitzaigun, multzo berean geundelako. ETB beti etortzen zen eta nik beti euskaraz hitz egiten nuen. Gogoratzen naiz Dani Aranda Leganeseko prentsa arduraduna askotan harrituta geratzen zela, ea ze kristo esan ote nuen. Ondoren galdetu egiten zidan. Bigarren Mailan ez nintzen asko aritu euskaraz prentsarekin, euskal talde bakarra Athletic B baitzen. Lehen Mailan berriz hartu genuen ohitura hau. Baina nahiko lasai eraman dut, normaltasunez. Ez dut eduki inongo arazorik.

Orain jardunaldi bakoitzean izango dira euskarazko prentsaurreko ugari.
Bai, partida askotan hitz egingo dugu euskaraz!

Galdera gutxiago izaten dira euskaraz?
Normalean prentsaurrekoetako galderak oso antzerakoak izaten dira. Lehenengo bizpahiru galdera izaten dira euskaraz eta ondoren gazteleraz beste horrenbeste. Antzekoak izaten dira. Normalean, gainera, aurreneko galdera horiek hartu eta gaztelerara itzultzen dituzte. Lehen, euskaraz egindako galderak

ostean gazteleraz ere erantzuten genituen, baina, Realean egon nintzen denboran, ez zizkidaten galdera berdinak egiten. Leganesen bai, han ez baitzuten ezer ulertzen eta orduan erantzun bera gazteleraz ere eskatzen baitzidaten, baina Euskal Herrian ez zait hori egokitu.

Futbolean egunerokoan euskararen presentzia altua izatea zaila da?

Bai, jokalaria euskaldunik ez baduzu bai. Leganesen eduki ditut batzuk, eta batzuekin euskaraz gehiago aritzen nintzen. Baina ez da erraza izaten. Euskara normaltasunez erabiltzen duten jokalaria behar dituzu.

Orain Alaves entrenatuko duzu. Bi euskal herritar daude taldean, baina Martin Agirregabiriak bakarrik daki euskaraz.

Bai, Manu Garciak ez daki. Martinekin [Agirregabiria] hitz egin nuen pixka bat. Ez ginen ezagutzen eta hasieratik euskaraz aritu ginen. Berari ere gustatzen zaio, beraz, ondo egon zen lehen kontaktu hura. Ez dakit hemendik aurrera zenbat hitz egingo dugun euskaraz, baina ziur nago berarekin hitz egitean, hasiera batean, euskaraz zuzenduko natzaiola.

Urte asko eman dituzu Estatu espainolean, iaz Euskal Herrira itzuli arte. Faltan botatzen zenuen?

Beti bota dut faltan. Baina zaila izaten da zuk nahi duzun tokian entrenatzea. Entrenatzailea izan eta zuk zeuk aukeratzea non entrenatu, oso zaila da. Lana



Jaizki FONTANEDA | FOKU

edukitzeagatik soilik pozik egon zaitezke, oso nekeza da. Ni pozik egon naiz leku guztietan. Realean ere bai. Eta aurren gertatu behar dena, Lehen Mailan bost talde egotea, bost entrenatzaileak euskaldunak izatea eta Julen Lopetegik bera ere Sevillan egotea, ez da normala. Politiki izango da.

Zergatik uste duzu gertatu dela bost euskal taldeetako

entrenatzaileak euskal herritarrek izatea?

Horrelaxe gertatu da. Lehen Mailan lana edukitzea ez da erraza izaten, eta, hori gutxi balitz, entrenatzaile denok euskaldunak izatea eta guztiok euskaraz jakitea are zailagoa da. Uste dut lehen aldia dela. Osasuna Lehen Mailara igo zenean, duela hiru urte, ni Leganesen nengoen, baina euskal taldeetako entrenatzaile guztiak ez ziren

euskaldunak. Horregatik izango da berezia aurtengo denboraldia.

Aurren garrantzi gehiago eman zaie etxekoei?

Lan ona egin dute eta horrela gertatu da. Jagoba Arrasatek igoera lortu du Osasunarekin, Mendilibar guztiz asentatuta dago Eibarren, Imanol Alguacil jada badoa esperientzia hartzen Realean, Gaizka Garitanok ondo

bukatu du denboraldia Athleticekin eta niri Alaves entrenatzeko aukera sortu zait. Orain aprobe txatu egin behar dugu.

Realean hilabete batzuk egin zenituen, nola laburbilduko zenuke?

Beste esperientzia bat izan zen. Pentsatzen genuen urte askorako izango zela, kontratua urte askorako baitzen, baina futbolak horrelako gauzak ditu. Motza izan da, baina pozik nago egindako ibilbidearekin. Nire asmoa horixe zen. Gero aldaketa bat eman zen. Futbola etapak dira. Bat amaitu da eta orain beste bat hasten da.

Azken bi denboraldietan, bukaera aldera, helburua izan da ea zein izaten zen euskal talderik onena sailkapenari dagokionez.

Zaila da Europarako sailkatzea. Realak eta Athleticetik eduki dituzte beraiei aukerak, eta Alaves bera ere hor ibili da bukaeraraino. Azkenean, talde bakoitzak bere helburuak ditu. Hurrengo denboraldian, Alaves, Eibar zein Osasunak mantentzeko helburua edukiko dugu. Realak eta Athleticetik, agian, Europara sailkatzeko lehian izan nahiko dute. Ikusiko beharko da denboraldia nola joaten den. Guztiok gogor borrokatuko dugu, hori ziur.

Behin aurreneko helburua lortuta, nahikoa da euskaldun onena izateagatik borrokatzea?

Borroka hori ere edukiko dugu, bai. Baina aurreneko helburua da maila mantentzea eta gero bakoitzak ikusiko du nora begiratu. Gora begiratzen badugu hobeto, eta ahal bada euskal talde onena izatea, ba askoz hobeto.

Mozkorraldi itsua

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Euskal Herriko eremu batean behintzat, luze dirau azken bi hauteskunde kanpainetako mozkorraldiaren bestondoak. Besteak beste, Espainiako Gorteetarako hauteskundeen ondoren, presidentetzarako boto gehien bildu dituen hautagaiak ez duelako gehiengorik, eta gobernu osatzeko bazkide printzipala izan daitekeenarekin gobernu hori nola bataiatu hausnartzen ari den itxurak egiten dituelako.

Udal eta foru hauteskundeek, berriz, matematikak egiteko eta ia aritmetika

bera ere behartzeko tentaldira eraman gaituzte hainbat herritan. Egunotan, zenbat aldiz ez ote ditugu entzun Iruñeko, Lizarrako, Durangoko, Andoaingo edo Pasaiaiko alkatetza ahotan hartu duten politikarien hitzak.

Etengabeko kanpainan bizi garela askotan esaten dugu, eta hauteskunde ondoren ere luzatzen ari den antzerkiak aspertu egiten gaitu. Aldi batetik bestera, teoriarik, lau urteko tartea egoten da. Baina ikuskizunaren eta zirkua-ren gizartearen, atsedetik ez, ez kargu hartzeen aurretik ezta ondoren ere.

Hain justu, gaur osatuko dira udal gehienetako udalbatzak eta egingo dira alkatea hautatzeko bozketak. Albiste izango da, han edo hemen, lortutako boto kopuruari esker izan ordez, bidelaguna konbentzitzeko gaitasunari esker iritsi dela norbait alkatetzara. Edo arerioetako bat izarratzeagatik, hainbeste gorroto ez duen arerioarekin bat egin duela auskalo nork. Eta gero herriaren ordezkari direla esango digute. Eta hauteskunde aldirako mediatikoki aktibatutako den herriak belarriak eta begiak estaliko ditu hurrengo hauteskundeetara arte. •

Gutunak

Joxean Agirre

Gutuna da Internet aurreko belaunaldikook alde edo moldez noizbait landu dugun literatura genero bakarra. Autobiografia-ren adar xume, aitorpen intimo nahiz bestelakoak egiteko leku eroso, gutunak igorlearen lekuan berehala jartzen gaitu.

Egunotan irakurri ditut Garazi Goiak eta Goizalde Landabasok elkarri idatzi eta “1.362 km euri” liburuan bildutakoak (izenburua, egia esan, ez zait oso inspiratua iruditu). Etengabe lanean eta bidaiazten ari diren emakumeak dira, presaka bizi direnak. Miresten dituzten emakumeez mintzo dira batez ere, baita beren lanaz, amatasunaz, irakurtzen dituzten liburuez eta beren ametsaz ere. Gutunak ederrak dira. Gehien harritu nauena beren izaeraren irmotasuna

izan da, beren pentsaeraren gotortasuna, beren burutazio, gogoeta eta pentsamenduetan zalantzak zeinen leku gutxi duen ikusteak, alegia.

Behinola Jon Sarasuak eta Andoni Egañak egindako “Zozoak beleari” paregabea ekarri didate gogora edo, atzerago joanda, Andima Ibinagabeitia eta Jon Miranderen arteko gutun truke harrigarri hura. Azken hauek, nolabait esateko, benetakoagoak dira, intimoagoak. Bertsolarienak literarioagoak izan zirela esango nuke eta idazle emakumeonak, borrokalariaioak.

Etiket kanpo ere bada adibide gogoangarririk. Bada Flauberten edo Kafkaren gutunak beren obra “serioak” bezain interesgarriak direla uste duen irakurle-rik. Lehen idazle guztiek gordetzen zi-

tuzten gisako gutun trukeak. Nik ez ditut irakurri, baina famatuak dira Virginia Woolfek eta Vita Sacville-Westenek trukatu zituztenak.

Oraingo idazleek argitaratzeko asmoarekin idazten dituzte. Interesgarria da, beste adibide bat aipatzearen, “Enemigos públicos” (“Ennemis publics”), Bernard-Henry Levy eta Michel Houellebecq-en arteko posta elektronikoen trukea biltzen duen liburua.

Generoak askorako ematen du. Hauteskunde emaitzen digestioa egin ezinik gabiltzan honetan pozik irakurriko nuke Atxagaren eta Larrionen arteko gutun truke bat edo Otegi eta Ibarretxeren arteko bat. Aurreiritziak izango ditut, baina ez nuke erosiko Iñigo Urkullu eta Idoia Mendiaren artekorik. •



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Testuingururik gabe



Ilustrazioa: JONBI EGURZEGI

Aurrekoan eman zuten **ETBn Gladys del Estalen hilketaren urteurrenaren harira eginiko saioa**. Lagunen eta militantzia kideen, lekukoen, testigantzak. Garai hartako poli-ziaren jarrerari kritika. Piano musika melankolikoa. Borroka ekologistaren aldarri *naive* bat. Baina hori guztia, gertaeren testuinguru orokorretik urrun. 1979ko ekaina zen eta urte hura mugarri izan zen Euskal Herrian. Aipatu telebista saioan, egun berean beste ekitaldi bat, ez hain erradikala, omen zegoela dio Milagros Rubiok, Tuteran EMK alderdiko zinegotzia zenak. Baina telebista publikoko kazetari-ek ez dute uste hari horri tiratzea esanguratsua denik ikuslearentzat.

1979ko udaberrian giro optimista zegoen Euskal Herriko militantzia konprometituaren artean. Apirileko hauteskundeetan, Herri Batasuna bi-

garren indarra bihurtu zen, eta beste alderdi iraultzaileekin batera adostu-tako herri hautagaitzek ere emaitza bikainak izan zituzten. Aste batzuk baino ez ziren igaroak Konstituzioa-ren erreferendumetik. Askorentzat mezua argia zen: Euskal Herriak ez zuen Espainiako monarkiaren Konstituzioa onartu. Frankismoarekin apur-keta lortzeko, bide berri bat irekitzeko aukera zegoen Euskal Herrian. Herri Batasunak bere hautetsiekin eta mu-gimendu herritarrekin batera, estatu-tu proposamen herrikoi bat eratze-ko asmoa adierazi zuen. ETA militarra inoiz baino indartsuago ageri zen, go-bernua negoziatzera laster eserarazi-ko zuela erabat sinetsirik.

Eskuinekoen artean beldurra hedatu zen. Tuteran inperialismoaren eta energia nuklearraren erabileraren aurka milaka lagun bildu ziren egun berean, Mendizorroztako futbol ze-laia ere mukurru bete zen. Gasteizera

deitu zuten PNVk, PSEk eta Euskadiko Ezkerrak eta alderdi horietako hautes-tsi guztiak bertaratu ziren. Helburua, 1977an aukeratutako parlamentari-ek idatzitako estatutu proposamena bul-tzatzea eta herri mugimenduei eta al-derdi iraultzaileei ekinbidea moztea. 1979ko ekainaren 3an bi mundu ikus-keraz zeuden aurrez aurre. Gasteizen bildutakoek politika gorbataz jantzi-tako gizonen esku utzi behar zela de-fendatzen zuten. Tuterara hurbilduta-koek bestelako mundu bat exijitzen zuten, herritarren beharren arabera egituratutakoa eta elitearen interes berekoia geldiaraziko zituen.

Horixe bera zen ekidin beharrekoa. Horixe bera zen gobernuak jomugan zuena. Horixe bera, beldurtu eta desaktibatu behar zena. Horretara jo-an zen polizia Tuterara. Nafarrei era-kutsi behar zitzairen zer zekarren go-bernuaren aurka egoteak: heriotza. Hori zuen basko matxinatuekin el-kartzeak. Polizia, borrokak eta tiroak. Gladysen heriotzatik egun gutxira, Carlos Garaikoetxea nafarra aukeratu zuten Euskal Kontseilu Orokorreko (CGV) presidente. Berak negoziatu zuen, Moncloako jauregian eta herri-tarren begietatik urrun, autonomia estatutuaren azken bertsioa. Aldi be-rean, gobernuak Herri Batasunaren ekitaldi publikoak debekatu zituen uda hartan, Espainiaren batasunaren aurka zeudelako. Zenbait aste beran-duago, Nafarroa estatututik kanpo mantentzearen aldeko jarrera adiera-zi zuten PSEko nafar buruzagiek eta Garaikoetxea lehendakari bihurtu zen. Bere lehen gobernuan, enpresa garrantzitsuetako goi-kargudunak. Energia nuklearraren aldeko jarrera argiarekin, euskal gobernu autonomi-koa eratu zen Gladysen heriotzatik urtebete baino gutxiagora. Eta Alian-za Popular-ek eta UCDk publikoki txalotu zuten. Baina ETBn nahiago dute horretaz guztiaz ez akordatu... •

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Situazio-ironia sinestunentzat da

Ironia aztertzen dudala jakitean, denek izaten dute prest adibideren bat, eta galdetzen didate ea ironia den, edo zergatik den ironia, edo nola esplikatu dezakedan nire teoriarekin. Batzuetan, edo askotan, ez dira ironia-adibide garbiak izaten. Umore beltza, komentario ingeniosoak, hitz-joko barregarriak, horiek denak sartzen ditugu ironiaren zakuan. Nahaspila hori txukundu eta gauza bakoitzari bere tokia ematea, antzekotasunak eta aldeak argitara ekartzea eta mugak ondo zehaztea, horixe da ironia ikertzen dugunon lana.

Ironia mota bat baino gehiago dago. Normalean hizkuntzarekin, zerbait esatearekin, lotzen dugu ironia –hitzezko ironia da hori—. Baina, harrigarriki, zerbait ironikoan pentsatzean, sarritan, beste mota bateko ironiaren adibideak etortzen zaizkigu burura. Situazio-ironia kasuak dira asko eta asko, gertaera ironikoak alegia.

Suhiltzaileen etxea sutan kiskalita, hori da situazio-ironiaren adibide klasikoa. Egunero-egunero bizi ditugu gisa horretako gertaerak: euskaraz gaizki idatzia dagoen euskaltegiko kartela, kartzelan kondena betetzen ari den Zigor presoak. Sinbolo bihurtu den irudirik ere eman du situazio-ironiak: duela zenbait urte, Turkian, LGTB eskubideen aldeko manifestazioa geldiarazten saiatu zen polizia. Urkanoak ireki zituztenean, jendea uxatzeko, manifestazioaren gainean harro zabaldu zen ostadarra sortu zuen urak, geldiarazi nahi zuten harexen ikurra eder eta handi marraztuz.

ZERK EGITEN DU EGOERA BAT IRONIKO?

Ez dago oso argi zerk egiten duen egoera bat ironiko, edo ez gaude horretan ikertzaileak ados behintzat. Egunerokotasunean zerbaiti ironiko esaten diogunean ere, lauso xamar erabiltzen dugu ironiaren ideia. Duela ez asko, sagardotegira joan ginen lagunak. Sagardoa gustatzen ez, eta ardoa eskatu nuen nik bazkaritarako. «Horixe bai ironikoa, sagardotegian ardoa edatea!» esan zidan batek. Esango nuke ezetz, ironiaren mugaz bestaldeko zerbait dela sagardotegian ardoa edatea. Hori gogoan nuen

oraindik, lehengusuak, pasadizo haren batere berri-rik izan gabe, esan zidanean sagardotegian ikasi zuela berak ardoa edaten. Ironiaren antz handiagoa zuen hark, inondik ere. Eta atzo, bodegara bixitan joan ez joan ari ginela, sagardo-ardo ironikoen hirugarren perla entzun nion lankide bati: sagardotegi batean edana omen du berak inoizko ardorik onena, hara.

Mugak ez ditu oso argiak situazio-ironiak, edo ez dugu guk oraindik asmatu horiek zehazten. Bi ezau- garri behintzat badituela dirudi: beti du oinarrian nolabaiteko talka edo kontrastea, espero denaren eta gertatu denaren artean, uste genuenaren eta be- netan izan denaren artean, nahi genukeenaren eta izan denaren artean. Suak itzaltzearen eta sutan kis- kaltzearen artean bada talkarik, manifestazio bat zapuztu nahiaren eta manifestazioaren ikurra mar- rraztearen artean kontraste nabarmena dago, sagar- doa edatera joaten garen etxean ardoa edaten ikas- tea ez da berez espero zitekeena.

GERTATU EGIN DEN ZERBAIT, NAHI GABE

Situazio-ironiak, ironia denez, badu talka bat oina- rrian, bada. Halaber, situaziozkoa denez, gertatu egin den zerbait da beti, nahi gabe, inoren ironia- asmorik gabe. Hori du bigarren bereizgarri. Euskal- tegikoek nahita egin badute okerra kartelean, hori ez da gertaera ironiko bat (izango da beste mota bateko ironia, akaso). Zigorri ez zioten izena ironia- asmoz jarriko jaio zenean, baldinbaitere. Situazio- ironia, gertatu egiten da, ez du inork (nahita) sor- tzen.

Baina, gauzak zer diren, esango nuke gertaera ho- rietan, soilik kasualitate huts bat, zerbait harriga- rria, zerbait polita edo graziosoa, horrelako zerbait soilik ikusteko orde, ironia atzematen dugula iru- ditzen bazaigu, horregatik dela hain justu: gertaera horri esanahia eman nahi diogulako, zerbaitegatik gertatu dela sumatzen dugulako, bizitzako keinu intentzionaltzat hartzen dugulako. Azken finean, zerbaitek eragin duela pentsatzetik gertu gabiltza- lako. Situazio-ironia sinestunentzat da. •

«EMAKUME FABRIKA»

Indarkeria matxistaren eta kontsumoaren arteko lotura ikusarazi eta salatzeke ekimena

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Iragan martxoan “Fabricando mujeres” dokumentalaren web plataforma abiatu zuen Setem Hego Haizea gobernuz kanpoko erakundeak. Dokumentala iragan azaroan estreinatu zuten, eta haren segida da parte hartzeke gune hori. Biak ere indarkeria matxistaren eta ohiko kontsumoaren arteko loturaren eta horren aurrean egon daitezkeen alternatiben gaineko hausnarketaren ondorio dira, eta Setem Hego Haizearen egitasmo beraren parte. Haren gaineko informazio bila, Jon Narvaezen-gana jo dugu.

Setem Hego Haizea erakunde-ko kideak dioenez, lehendabizi “Indarkeria kontsumitzen dugu?” ikerketa egin zuten, eta haren ondorioa zinez esanguratsua iruditu zitzairen. Izan ere, ikerketaren arabera, zaila da kontsumoan presente dauden indarkeria matxistak de-

tektatzea, naturalizatuta, barneratuta daudelako, nork bere gain hartzen dituelako, gure gizartean ohikoak direlako, alegia.

Ikerketa hura oinarri zutela, dokumental bat egitea erabaki zuten jarraian, indarkeria horiek zeintzuk diren argitaratzeko eta emakumezkoen bizitzetan dituzten ondorioak ikustarazteko. Baina modu originalean egitea bururatu zi-

tzairen, sarritan ikerketak ez baitira erakargarriak, Narvaezek dioenez. Hartara, Al Borde Films ekoiztetxearekin harremanetan jarri eta «bi mundu» asmatu zituzten, Emakumeen Fabrika eta Maiteren Lantegia. “Fabricando mujeres” dokumentala Zinebi Festibalean aurkeztu eta ondoren aurkeztu bira bat egin zuten.

Filmak ikerketaren hainbat ondorio agerian uzten ditu,

Maite, «Fabricando mujeres» dokumentaleko protagonista, bere lantegian.
SETEM Hego Haizea

baina, esan bezala, ezohiko moduan.

DOKUMENTALA

Emakume Fabrika irakurtzen den atea antzinako lantegi batego muntaketa-kate baterako sarrera da. Uhal garraiatzaile batean lo egiteko pastillak, takoiak, silikona litro bat, Barbie panpina, txupetea, kristalak garbitzeko produktu bat eta beste hainbat gauza ageri dira.

Fabrika bitxia da, dokumentalak salatu nahi duen egoera oso ondo irudikatzen duena: «Hona hemen Emakume Fabrika. Bertan ekoizten dira urtero ‘emakume idealaren’ milioika ale. Ekoizpena aurrera eramateko erabiltzen den eredu egungo eredu sozial nagusira ongien egokitzen dena da, AKHK (Aliantza Kapitalista Heteropatriarkala) agindutakoa, hain zuzen», irakurgai dago «ongieterri» mezuan. Eta jarraitzen du: «Fabrikatik diseinatutako metodoa dela bide, sistema mantentzea ahalbidetzen duen engranajeari ezin hobeki egokitzen zaizkio emakumeak, gehienbat lanaldi hirukoitzari esker: lanekoa, familiakoa eta pertsonala. Lorpen handienetako bat izan da produktu emakumeak berak izatea estereotipoen azken kontsumitzaileak, hain naturalizatuak, sortuak izatearen kontzientzia ere ez baitute!».

Estereotipo horiek kontsumitzeak eta integratzeak bigarren mailako ondoriok eragin ditzakeela ohartarazten du: «Aukera dago zuk indarkeria senti dezazun kontsumoaren bidez. Publizitatearen eta beste zabalkunde-kanal sotilago eta sofistikatuago batzuen laguntzaz, naturalizatu eta barneratu ahalko duzu».

Maiteren Lantegian, berriz, filmeko protagonista Maite



ageri da, Itziar Aizpuru akto-reak antzeztua. Lantegiko hondarrak batzen ditu eta indarkeria matxistarik gabeko kontsumoa sustatzen duten asmakizun eta proposamen eraldatzaileak egiten ditu. Maitek bideo kanal bat sortu du, «nire sorkuntza-lan artistikoenak eta saltseroenak igotzeko», helburu berarekin.

Filmak, halaber, hainbat lagunekiko elkarrizketak eskaintzen ditu.

WEB INTERAKTIBOA

Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundien, Garapenerako Lankide-tzaren Euskal Agentziaren, Gariza Films-en eta Emakunderen finantzazioa izan duen proiektu honen azken pausoa web interaktiboa izan da. Dokumentalean bezala, webean ere bi gune edo «bi mundu» daude, Fabrika eta Maiteren Lantegia. Lehenean sistema kapitalista irudikatzen da, eta bertan ekoizten dituen ereduak agertzen dira. Gune horretan salaketak egiteko atal bat dago, Erreklamazio Arloa, Twitter bidez *#nos fabrican* traolarekin salaketak jasotzen dituen: eguneroko kontsumoan detektatzen diren indarkeria matxisten salaketa bilduma. Bigarren gunean, Maiteren Lantegian, Alternatiben Laborategia dago, eta hor ere parte hartzeko toki bat dago, bideo, artikulua zein audio bidez alternatibak proposatzeko. Edonork bidali ahal ditu indarkeria matxistarik gabeko kontsumo bide bat eraikitzekekarpenak.

Atal horretan bideo-joko prototipoak, bideo-collageak nahiz askotariko asmakizunak daude, sorkuntzarako material gisa erabilgarri, indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremanaren inguruan gogoeta egiteko. «Dena umo-



Goian, dokumentalaren fotograma bat. Eskuinean, kartela. SETEM Hego Haizea



Bitxia da Emakume Fabrika, baina dokumentalak salatu nahi duen egoera oso ondo irudikatzen du: «Bertan ekoizten dira urtero 'emakume idealaren' milioika ale»

Maiteren Lantegian bideo, artikulua zein audio bidez alternatibak proposatzeko aukera dago. Edonork bidal ditzake indarkeria matxistarik gabeko kontsumo bidea eraikitzekekarpenak

re-ukituarekin; umore absurdoa, nik gustuko dudana», dio Maitek.

Liburutegi bat ere badago eskuragarri, Maiteren «irakurgai kutunenak» partekatzeke: «Indarkeria kontsumitzen dugu?» ikerketa eta beste hainbat eskuliburu, testu nahiz infografia ikusgai daude, kontsumo-eredu kapitalista indarkeria matxistak erabiltzeko tresna bilakatzen duten elementuen inguruan gogoeta egiten laguntzen dutenak.

Orain ikerketa luzatzen ari dira. Izan ere, lehen partean hiru esparru azertu zituzten: etxeko produktuak, kosmetika eta produktu pertsonalak, eta gune publikoa. Orain esparru gehiago prestatzen ari dira. Luze gabe plazaratuko dute ikerketaren bigarren parte hori. «Ez dugu eperik, baina bali-teke urte bukaerarako aurkeztea», dio Narvaezek.

Webgunean jende askok parte hartzen duen galdetu diogu Narvaezi. Kostatzen dela dio; hala ere, alternatiben gunean nabari dela parte hartze hori, badaudela proposamenak. Edonola ere, parte hartzea are-agotu egin nahi dute.



Marisol RAMIREZ | FOKU



IKUSMIRA


KIROLAK JOSTEN DITUEN «GU-AK»

Asmatzen duenean aulkian salto egitea. Huts egiten duenean aulkian salto egitea. Ezkerrarekin eman behar dionean zure esku ezkerre estutzea. Partida osoa hanka puntetan gozatzea eta sufritzea. Ura edaten duenean zuk ere zintzurra freskatzen sentitzea. Haren izerdi tantak zure kopetan erortzen sumatzea. Kirolariaren eta zalearen arteko soka gauza bitxia da; azaltzeko zaila, samurragoa ulertzeko. Eta partida nola joaten den arabera, soka hori gehiago edo gutxiago korapilatu daiteke; batzuk eta besteak elkarri txirikordatzera. Enpatiatik asko daukala esango nuke, bestearen azalean jartzetik. Tira, batzuetan azalean, zapatiletan eta eskuetan; begira dagoenak errazegi jakiten baitu jokatzeko dagoenak zer egin behar duen. Irribarriaren besarkada kolektibo horrek asko esaten du kirolak sortzen eta josten duen «gu-az». Ez du hitzik behar. Eta «ni-a» hain modan dagoen egunotan, «gu-ak» beti dira pozerako. Amagoia Mujika Telleria



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:





> Osasungintzaren ajeak, ikasleen ahotik



NAIZ+

EHUko Medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko 605 ikasleen graduazioa izan da eta aurten ere aldarrikapenak nagusi izan dira mediku berrien ahotan.

Ikasketetan zein osasun zentroetako praktiketan mezu ho-



mofobo, transfobo eta xenofoboak jaso dituztela gogor salatu zuen hitza hartu zuen ikasleak. Sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunetan homosexualitatea ez dela arrisku faktorea gogora ekarri zien, ozen, munduko gi-

nekologoei. Era berean, iaz arte transexualitatea Osasunaren Mundu Erakundearen gaixotasun mentalen zerrendan egon izana gogor deitoratu zuen. «Transexualitatea ez da gaixotasun mentala! Ez orain ez inoiz!», salatu zuen.

Euskaraz ikasteko eta lan egiteko eskubidea ere aldarrikatu zuen hitza hartu zuen ikasleak. Medikuz zerbitzu gertuko eta kalitatezko bat eskaintzeko, gaixoareen hizkuntzan egitearen garrantzia nabarmendu zuen. Haatik, ikasle euskaldunak EHU bigarren mailako ikasle direla iritzi zion. «Hizkuntza ez da komunikatzeko tresna soil bat. Hizkuntzak gu egiten gaitu, eta horrek kultura baten barruan kokatzen gaitu. Gure hizkuntzaren kontrako edozein jazarpen gure kontrakoa da», esan zuen. Medikuntzaren pribatizazioa eta ikasleek eta irakasleek praktikak egiteko dituzten baldintza «eskasak» ere hizpide izan zituen.

Osasungintza euskalduntzeko Aintzat Hartu mugimendua hitzartze osoa jaso du bideoan.



> Lizarrako alkatea, itzal handiko Twitterreko erabiltzailea

Lizarrako alkate Koldo Leoz Estatu espainolean Twitterren eragin handien duen bosgarren alkatea bihurtu da PSNren eta EH Bilduren arteko elkarriketaren aldeko hari bat argitaratu ondoren. Twitterreko bere kontutik Pedro Sanchez eskatu zion bere alderdiak Nafarroako egoeraz EH Bildurekin hitz egin dezala.



«Nolatan uko egin dakioke hitzari protagonismoa emateari?»

Udalak osatzeko bezperan, Leozen hitzek txalo asko jaso dituzte Twitterren, eta @barometro Aytos Barometro Alcaldes kontuak, Leoz sare sozial horretan Estatu espainolean eragin handien duten alkateen bosgarren postuan jarri du.



> Aniztasunaren aldeko ortzadar koloreko zebrabidea

Francis Vadilloren omenezko zebrabide koloretsua ez dute berriro margotuko, haren oroimena ez baita desagertuko.

LGTBI kolektiboari aitortza egin eta Francis Vadilloren oroimena ez itzaltzeko margo-tu zuten lehen aldiz, duela sei urte, Errenteriako zebrabide hori. Orduraz geroztik, urteroko hitzordua izan dute EHGAM, Saretuz Proiektua, Iztieta Gurekin Auzo Elkarte eta



Errenteriako Udalak. Aurten goa, baina, hitzordu berezia izan da, ez baitute berriz ortzadarrak margotuko.

«Eskoletan gaia lantzen da egun, aurrerapauso garrantzitsua da, eta naturaltasunez hitz egiten da. Francisek bere lekua du hemen», aitortu zuten ekimena bukatutakoan. Duela 40 urte Polizia batek tiroz hil zuen Francisco Vadillo Santamaria Francis trabestia.

> GARAREN aldeko kontzertuko akordeen oihartzuna

Prentsa eta adierazpen askatasunaren alde Illunbe girotu zuten musika akordeek oihartzuna izan dute sare sozialetan. Oholtza gainean izandako artista eta taldeek, entzuleek eta GARA eta NAIZ egiten duten langileek euren esker ona plazaratu dute haietan.

Elkartasunak eztanda egin zuen joan den igandean Donostiako Illunbe plazan. Hamar mila entzuleren aurrean denak emanda ibili ziren hiru oholtzetara igotako musika



taldeak. Haietzako plaza berezia izan zen atzokoa eta hala eskertu nahi izan zuten sare sozialetan. Fermin Muguruza abeslariak ezin izan zuen bertan egon, baina elkartasun mezua zabaldu zuen sarean. Jon Maiak ere eskertu zuen izandako oihartzuna. Hark bezala, herritar ezagun eta ezezagun askok zabaldu zuten euren esker ona sareetan.

GARA eta NAIZeko langileak ere pozarren agertu ziren sare sozialetan.



> Lyme gaixotasuna dutenen alde, Hondarribitik Andorrara

570 kilometro egingo ditu Ibai Iturria mendizale beratarak Lyme gaixotasuna dutenen eta haien senideak biltzen dituen Alyme elkarteak diruz laguntzeko. Ostiralean abiatu zen, eta, hilak 23an, Pirinioak zeharkatzen dituen GR-11 ibilbidea eginda, Andorrara iritsiko da.

Mendian eskarmentu handia du Ibai Iturria mendizale bera-



tarrak. Egingo duen ibilbideko kilometro guztiak diruz laguntzen ahal dira, eta lortutako diru guztia Alyme elkartearentzat izango da. Kilometroko nahi den adinako ekarpena egin ahal da. Elkartearen kontu zenbakia jakinarazi dute: ES09 0138 0010 40 0020719877.

Erran.eus atariak eman du egitasmoaren berri.



Zarauzko kiroldegian egiten du lan Libana Taboadak, koordinatzaile eta kirol orientatzaile moduan. Jon URBE | FOKU

infraganti LIBANA TABOADA

Kirola du pasio eta ofizio. Beste zaletasun batekin uztartzen du: musika. Lagun giroan abesten hasi eta agertoki gainera igotzen da egun, Ibai Marin bakarlariarekin. Ez daki jasotzen dituzten txaloak nola kudeatu, bere habitat naturala uretan baitago 2007an arraunak guztiz harrapatu zuenetik. Lesio larri bat gainditu ostean, Orion ari da aurten, patroilanetan.

Paralelismo handia dago entrenamenduen eta entseguen artean», dio guztiz konbentziturik Libana Taboadak (Zarautz, 1992). Arraunaren eta kontzertuen arteko lotura aurkitzen saiatzen da, eta «konpromiso mailan» egiten du. 2007an eman zituen aurreneko pala-

dak Zumaian eta 2015ean animatu zen lehen aldiz abestera, Mutrikuko Saturraran hondartzako kantuan lagun artean zegoela, tartean bakarkako ibilbidea hasi berri zuen Ibai Marin abeslaria. «Zerbeza bat besteren atzetik edaten ari ginen, eta, bat-batean, Ibaik gitarra atera eta abesten hasi nintzen. Harrituta geratu zen eta mikrofonoarekin probatu behar ge-

nuela esan zidan. Bada, esan eta egin ere egin genuen. Hurrengo kontzertuan bi kantutan egin nituen koruak, hurrengoan lautan... eta azkenerako guztietan!». Ordutik, Taboadak eta Marinek bat egin dute agertoki ginean.

2015ean, hain justu, arrauna utzi behar izan zuen denbora batez Taboadak. Ezinbestean, lesio baten eraginez. «Uda hartan oso gaizki pasatu nuen». Bada, patuaren kontuak edo, «uda amaieran Ibai ezagutu nuen eta, ondoren, Oriora etorri nintzen bizitzera. Egin nituen saiakera batzuk arraunean ere, baina ezin nuen». Iaz itzuli zen arraunera, «baina trainerilletako hiru estropada lehiatu nituen bakarrik».

Aurten jada lehentasuntzat du arrauna, berriro ere. Patroi lanetan aritu da trainerilla txapelketetan eta hastear den Euskotren Ligan Nadeth Agi-

rreren ordezkotako izango da Orioko taldean. «Apaltasun guztiz, daukagun taldearekin, dena irabaztera joan behar dugu. San Juan ez da egongo eta guk gauzak ondo egitera irten behar dugu. Horrela eginez gero, emaitza onak lortu beharko genituzke. Arraun Lagunak gertu ibiliko da: iaz jada tartetarako murriztu zituen eta aurten koska bat gora egin duela dirudi. Interesgarria izango da».

ARRAUNEAN DENA IRABAZI DU

Zumaiarekin Kontxako bandera bat eta hiru Liga irabazi zituen. Irabazi beharreko guztia irabazi ostean, traineruaren desagerpena ere gertutik bizi izan zuen. «Bagenekien denbora baterako kontua izango zela. Niri izugarrizko pena eman zidan, baina ikusten zen atzetik ez zetorrela odol berririk. Betikoak aritzen ginen eta, estropadara irteteen urduritasun puntu hori sumatzen ez duzunean, guztia birpentsatu beharra duzu».

Gaur egun, adrenalina bi lekutan aurkitzen du Taboadak: agertoki ginean eta estropadetan. Sentsazio berarekin egiten du topo agertokira igo eta aurreneko akordeak entzuten dituenetan eta estropada hasi zain uretan itxoitzen dagoenean: «Kontzertuetako lehen kantua beti da 'Bidean naiz'. Instrumentala da hasieran eta gero Ibai sartzen da; bada, bere estrofa amaiezina iruditzen zait. Estropadetako atzera kontaktaren parekoa da. Lehen nota abestean baretzen naiz».

Dena den, arrauna utzita patroilanetan dabilenetik, ez du jakiten nola askatu barnean duen adrenalina guztia. Lehen arraun egiten askatzen zuen baina orain taldea gidatzea egokitzen zaio. Horretarako, noski, oihu egin behar izaten du sarri. Abeslaria izanik, edo



2015ean arrauna utzi zuen Libana Taboadak lesio baten ondorioz. Iaz «probatzen» hasi zen berriro eta aurten «serioago» dabil Orioko taldean. Jon URBE | FOKU

«abeslari laguntzailea» –ez zaio gustatzen abeslari gisa izendatzea– arazo bat izan daiteke. Eta elkarrizketa egin genuen egunean egiaztatu ahal izan genuen: «Propoleo eta ezti apur batekin errekueratzea espero dut...». Patroi lanetan hasi zenetik, izan ere, ezinezko zaio ahotza behar bezala zaintzea. «Eskerrak maiatzean geldialditxo bat egin genuela justu trainerilla txapelketekin bat...».

MUSIKAREKIKO ZALETASUNA

Behin bakarrik pasa zaio ahotsik gabe geratzea eta egun batetik besterako kontua izan zen. Estudioan hiru abesti grabatu behar zituzten egunean gertatu zitzaion: «Ahotsik gabe jaiki nintzen. Mutrikuko AME estudiora joan ginen, probatzen saiatu ginen baina

ezinezkoa zen. Azkenean atzeratu egin behar izan genuen. Astebete itxaron genuen eta hiru kantu grabatu nituen», gogoratu du.

Musikaren eta arraunen munduan mugitzen da bere bizitza soziala. Arraunen bitartez Euskal Herriko kostaldea ezagutu du, eta, musikari esker, barrualdea. «Bi afizio oso ezberdin dira, baina asko betetzen naute biek», dio. Musikarekiko benetako pasioa duena Ibai Marin dela nabarmendu du –«nik kirolarekin dudanez», eta be-

Musikarako zaletasuna anaiak kutsatu ziola nabarmendu du Libana Taboadak. Libana txikia zenean musika talde bat zuen anaiak eta egun Ibai Marin eta Libanarekin batera aritzen da

Arraunean Zumaian eman zituen lehendabiziko paladak, 2007an. Kontxako bandera bat eta hiru Liga irabazi zituen. Iaz Orion «probatzen» hasi zen eta aurten «serioago» itzuli dela onartu du

rak «ahal duen guztietan» laguntzen diola, «badakidalako nire koruak lagungarri zaizkio- la. Asko gustatzen zait, baina Ibai ezagutu ez banu ez nintzen

inoiz abestera animatu- ko».

“Even if the skies gets rough” esaldia du azalean tatuatuta, besoa, Jason Mraz musikariaren “I Won’t Give Up” kantuko esaldia. De-

netariko musika entzuten du, «batez ere rock-and-rollera, baina musika ona oro har». Txikitatik du musikarekin lotura, anaiak musika talde bat izan baitzuen

eta berak kutsatu baitzion zaletasuna. «Su Ta Gar entzunez hazi naiz, eta, alde horretatik, eskerrak ematen dizkiot anaia- ri. Gurasoekin ere, kotxeko bi- daietan, Bob Marley entzuten joaten ginela oroitzen dut», azaldu du irribarrez.

Orain autoan White Buffalo- ren kantuak entzuten ditu, bai- ta Los Cigarros, M-Clan edo Morgan musika taldeenak ere; eta, nola ez, Hirarenak. Ibai Ma- rinen azken diskoa ez du gehie- gi entzun. «Estudioan hainbes- te aldiz entzun genuen jada nahikoa dela! Estudiotik kanpo agian ez nuen hamar aldiz ere entzungo. Oso arraroa egiten zait nire ahotza entzutea».

Jada dozenaka kontzertu eman ditu eta oraindik ez daki zer egin, zer aurpegi jarri edo non sartu ikus-entzuleak txalo- ka hasten direnean: «Oso gaizki eramaten dut».

Arraunean edo kiroldegian dago bere benetako habitatean. Jarduera Fisikoaren eta Kirola- ren Zientzietako gradua atera zuen eta, 2017. urtetik, BPXport enpresaren eskutik, Zarauzko kiroldegiko koordinatzailea eta kirol orientatzailea da. «Orien- tatzailearen zerbitzua Gipuzko- ako hemeretzi udalerritako ki- roldegietan jarri dute. Goiza normalean kiroldegian igarotzen dut, bezeroekin. Batzuk anbulatorioetatik datoz, bolan- tearekin; beste batzuk, gizarte zerbitzuetatik; eta badira ere beraien kabuz etortzen dire- nak, orientazio bila. Printzipioz mugimendu gutxiko pertsonak aktibatzen laguntzeko planak dira, erretzeari utzi nahi diote- nei zuzenduta dauden progra- men antzeko zerbait». Lana eta zaletasuna arazorik gabe uztar- tzeko aukera du behintzat. «Eta ez da gutxi!». •



Itziar Elizondo Iriarte

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

«Free? lan? ce»

Gaur egun horrenbeste erabiltzen dugun «freelance» anglizismoa ahotan hartzean, balizko askatasunetik zenbait enplegu-emailerentzat bere lana saltzen duen langileaz ari gara. Jatorrizko hitzak Erdi Aroko mertzenarioak aipatzen zituen, alegia, diruaren truke edozein lurralde edo printzeren alde beren lantzak erabiltzen zituzten soldaduak.

Erdi Arotik gaur egunera bitartean gauzek ez dute beti onera egin. *Freelance* langileen kasuan begi bistakoa da ematen ari den joera suizida: garai bateko arerioen kontrako lantzak beraien lan-eskubideak urratzen dituzten gezi pozoitu bilakatu dira. Autoesplotazio dinamikak bideratzeko koktel perfektua eraiki du gizarte neoliberalak, denon konplizitate ezetsua baliatuz.

Indibidualista amorratu egin gaituzte, eta gainontzeko pertsona-marketatik nabarmendu gaitezen norgehiagoka bulimiko betean murgildu gara sare sozialetan marka pertsonala egunean 24 orduz landuz. Lehia itsu horrek baditu plazebo faltsuak. Bai, asmatu duzue, oxitozinaz beteriko *like* ziztadak. Hori horrela, bere kasa lanean ari diren askok larrutik ordaintzen dute dinamika suntsitzaile hori.

Gure gizarte hiperkontsumista ikertu duen Byung-Chul Han filosofoaren esanetan, «egun nork bere burua esplotatzen du, eta errealizata sentitzen da dominazio horretaz jabetu gabe». Sistemaren logika zitalak ez du etenik eta gailurra jotzen du langile autonomo bakartuaren pentsamendu honetan: gertatzen zaidanaren ardura guztia nirea da, bakardadea, estresa, porrotaren etengabeko mehatxua eta itotzen

nauen larritasuna ahal dudan guztia ez egiteagatik datoz... Autoesplotazio horren ondorio arriskutsuena, Hanek dioenez, ez dakigula «iraultza noren kontra egin, errepresioa eragiten dutenak ez baitira existitzen».

Jakina, ohiko errepresiogileak betiko tokian daude, hor goian, kapitalaren logika itsumustuan jarraituz. Horiei egun gehitu zaizkie Interneten barreiatutako kapitalismo digitalaren sustatzaileak, itxura modernoarekin eta langileen askatasunaren eta malgutasunaren izean esplotazio estrategiak berrindartu dituztenak. Iraultza, akaso, lantzak aldaketa bilakatzetik etorriko da. Denok nola kontsumitu, bidaiatu, aisialdiari ekin, gozatu, bizi... aldatzetik. Horrela eginda areagotuko baitira *free* lan faltsu hori duin izateko aukerak. •



Freelance langileen kasuan, begi bistakoa da ematen ari den joera suizida.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GERARDO ZARAGÜETA. NAFARROAKO MUSEOA

LA TAFALLESA, EMAKUMEZ BETETA, DUELA MENDE BAT

La Tafallesa joan den mendeko 20ko hamarkadan sortutako konpainia izan zen. Valero familiarena zen, zine areto baten eta kasinoaren jabe ere bazena. Tafallatik Iruñerako ibilbidea egiten zuen, eta alderantzizkoa, bide horretan dauden herri askotan geldialdia eginez, hala nola Erriberrin eta Uxuen. Mugimendu handiko egunetan gainaldean jarrita ere joaten zen jendea, merkantzien ondoan. Testua ilustratzen duen argazkian emakume talde bat ageri da La Tafallesako autobus batean, 20ko hamarkadaren amaieran. Horien janzkerak adierazten duenez, negua da. Irudiaren egilea Gerardo Zaragüeta iruindar argazkilaria da, besteak beste Estanislao Aranzadi eta Manuel Irujok fundatu zuten "La Voz de Navarra" egunkariko erredaktore grafikoa izan zena. Osasunako argazkilaria ere izan zen. Bere lanik pertsonalena Iruñean ardaztu zuen, batez ere hango paisaia eta, nola ez, sanferminetan, lanbide bereko beste lankide batzuen lorratzari jarraituta.

GAUR8

ireki gure leihua

